



BIZKAIA GO!

BIZKAIA ERAIKIZ PARTE-HARTZEA OINARRI







BIZKAIAGO!



ZERGATIK **BIZKAIAGO?**

BIZKAIAGO PROZESUA

BIZKAIA HAZI ARAZTEKO **992 HERRI-PROPOSAMEN**



ZERGATIK BIZKAIAGO?

EAJ-PNVren aldetik hartu dugun konpromisoa betetzeko, 2015eko udal eta foru hauteskundeetarako egitasmoa herritarren proposamenekin osatuko dugulako, Bizkaian bizi diren herritarren ekarpenekin. Pertsona guztiek eginiko egitasmoa izatea nahi dugu, pertsona guztientzat egina. "Herri Egitasmoa" izatea nahi dugu.

Bizkaiko herritarren ahotsa entzun arazi nahi dugulako. Udalerrri guztietako emakume eta gizonak, adin guztietakoak, lan egoera guztietan daudenak. Guk guztiok Bizkaia osatzen dugulako eta guk guztiok Bizkaia Hazi Arazteko ideiak ditugulako.

Ekarpen hauen bidez, Bizkaiko pertsonak dituzten beharrian errealei bideratutako proposamenak jasotzen direlako. Irtenbide berritzaileak Bizkaiaren etorkizunerako gai korapilotsu eta kritikoak konpontzeko.

EAJ-PNVren aldetik ulertu egin dugulako gizarteak politika egiteko bestelako molde eta moduak eskatzen dituela, politika eta politikoeekin harremanetan izateko bestelako moldeak. Eta, erronka hori geureganatu dugulako.

Hauteskunde egitasmo batean hasi eta amaituko ez diren parte hartze esparruak sortu nahi ditugulako. Bizkaiko pertsona eta elkarten ekarpenak jasotzen segitu nahi dugulako. Bereziki, Bizkaiko pertsona gazteen ekarpenak behar ditugulako.

Ezinbestekoa delako Bizkaiarentzat egiten dugun proposamen honek Bizkaiko txoko guztietan bizi diren errealitateak eta beharrianak aurreikustea: Bizkaia anitza delako eta eskualde bakoitzak bere beharrak dituelako.

Denon artean, hobeto egiten dugula dakigulako.

ITXASO ATUTXA

EAJ-PNVREN BIZKAI BURU BATZARRAREN PRESIDENTEA



BIZKAIAGO PROZESUA

URTE BETEKO LANA. 10 TOPAKETA ETA 96 PARTE HARTZE MAHAI BIZKAIKO ESKUALDE GUZTIETAN

Prozesu luzea izan da. Urte bete luzea izan da **BizkaiaGO** diseinatzen hasi ginenetik. Ia 11 hilabete lehen topaketaren eta azkenekoaren artean. Eta, beste hilabete bat, prozesu osoan jaso ditugun proposamen guztiak egitasmo barruan txukuntzeko eta txertatzeko.

Bizkaia iparraldetik hegoaldera eta mendebaldetik ekialdera. Lan handia, bai, baina merezi izan duena.

LEKUA	DATA	MAHAI ZENBAKIA
GETXO	2014/04/05	10
LEKEITIO	2014/06/14	10
BARAKALDO	2014/10/04	11
DERIO	2014/10/18	9
ZALLA	2014/11/08	9
BASAURI	2014/11/29	9
DURANGO	2014/12/13	9
LEMOA	2015/01/24	10
GERNIKA	2015/02/07	9
BILBAO	2015/02/28	10




BIZKAIAREKIN KONPROMISOA HARTU DUTEN 1.152 PERTSONA

BIZKAIKO 1.152 EMAKUME ETA GIZON.

Larunbat goizez , beren aisi denboran mahai baten inguruan eseri dira ezagutzen ez zituzten beste pertsonen ondoan. Entzun egin dute. Beren arazoak eta proposamenak mahai gainean aurkeztu dituzte. Beren proposamenak, familiarekin aztertu dituztenak, lagun artean, bulegoan eta lantegian, beren elkarteen barruan agerrarazi dituzten ardurak, kezkak eta proposamenak. Irtenbiderik onenak adostu arte eztabaidatu dute.

Horietako asko etxera itzuli eta e-mail bidez bidali dizkigute topaketaren ondoren bururatu zaizkien ideiak.

Horiei guztiei, eskerrik asko, benetan.



BIZKAIHA HAZI ARAZTEKO 992 HERRI-PROPOSAMEN

IA 1.000 HERRI-PROPOSAMEN BIZKAIHA HAZI ARAZTEKO

992 proposamen izan dira, Bizkaia osoko eskualdeetan aurkeztu diren proposamenak. Esparru guztien ingurukoak dira, baina bereziki, Bizkaiko herritarrei arduratzen zaizkien gaietara buruzkoak: gure gizarte zerbitzuak bermatzea, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortaraztea, administrazio irekiagoak eta hurbilagoak sustatzea, eta Bizkaiak behar dituen hezkuntza eta prestakuntza bikainean aurrera egiteko bidea hartzea, etorkizunera begira denontzako aberastasun, ongizate eta gizarte kohesioa bermatzeko.

992 PROPOSAMENAK. DENAK INTERESGARRIAK.

Denak aztertu eta antzekoak diren berdinak bateratu ondoren, 445 proposamen ezberdin geratu dira, eta EAJ-PNVk denak baloratuko ditu Bizkaian aurkeztu nahi duen proposamena egiterako orduan

ESPARRUA	PROPOSAMENAK GUZTIRA	PROPOSAMENAK DESBERDINAK
GIZARTE POLITIKAK	145	67
ENPLEGUA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA	133	56
HIRITARREN PARTE HARTZEA, GARDENTASUNA ETA e-ADMINISTRAZIOA	118	57
HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA	98	40
KIROLA	82	43
INGURUMENA	72	35
KULTURA ETA KULTUR INDUSTRIAK	67	29
GAZTERIA	56	22
TURISMOA	54	23
EUSKARA	48	19
LANDA GARAPENA	45	26
BIDE AZPIEGITURAK ETA GARRAIOA	44	15
ARRANTZA GARAPENA	30	13
GUZTIRA	992	445



TURISMO ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

BIZKAIAN TURISMO ALORREAN DAGOEN ESKAINTZA GARATZERA BEGIRA

Adostasun bat dago Bizkaiak dituen aktiboen balioa azpimarratzeko beharraren inguruan eta merkatu ezberdinetan aukera guztiak baliatzen lagunduko dion eskaintza osatzeko. Kalitatezko helmuga turistikoa eskaini behar dugu. Lehiakorra, berritzailea eta, batez ere, profesionala. Horretarako, honako ekarpenak batu dira:

1. Eskualde bakoitza turismo alorrean izan dezakeen kokapen eta egoerari buruzko hausnarketa egitea, bakoitzaren aktibo turistikoen balioa azpimarratuz. Ezinbesteko dugu turismo eskaintza eraikitzeo eta garatzeko zutabeak identifikatzea, eta etorkizunean jarri behar dugu begirada.
2. Turismo esperientzia berrien garapena lagundu behar da. Turismo alorreko esperientzia berriak babestu eta sustatu behar dira, kokapen zehatz bat ezartzen lagunduko digutenak.
3. Bizkaiko ibaiek eta itsasadarrek eman ditzaketen aukerak azpimarratu behar dira, elementu dinamizatzaile izan daitezkeen neurrian. Esparru horretan esperientzia berriak garatzeko baimenak eskuratzea erraztea.
4. Dagoen eskariari buruzko ezagutza hobetzea. Kalitatezko helmuga turistikoa bihurtzeko esan nahi du eskaintza garatzea eta eboluzionatzea, turistak eskatzen duenarekin bat eginez, bere bisitan espero eta baloratzen duenarekin bat eginez.
5. Bezeroa zaintzea lehenetsi behar da. Turistak fidelizatzeko prozesuak hobetu.
6. Gastronomiak eman dezakeen bultzada aprobetxatu behar da. Euskal gastronomia oso erakargarria da eta horretan oinarritu ahal gara produktu osagarri batzuk garatzeko.
7. Bezeroari ematen zaion komunikazioa eta helmugari buruzko informazioa hobetzea, Oso garrantzitsua da bisitariak bere bisitan espero dezakeena argi izatea, hau da, herrialdean zer nolako eskaintza duen eta aukera osagarriak zein diren.
8. Turismoaren komunikazio eta sustapenean teknologia berrien erabilera bultzatzea. Ezinbesteko dugu web orrialdeak hobetzea, merkataritza elektronikoa bultzatzea eta aplikazio mugikor berrien garapena sustatzea.
9. Agenda-egutegi bakarra, herrialdean garatzen diren jarduerak guztiak ezagutzeko, bisitariari beren bisita planifikatzea erraztera begira.
10. Nazioarteko merkaturak landu behar da, bereziki mugakide ditugun herrialdeekiko. Bizkaiak aireportu bat du eta elementu motore gisa erabil dezakegu. Turismoa ezin da urtarotara mugatu eta behe-denboraldia garatu behar dugu.
11. Bisitariari ematen zaion arreta hobetu. Turistari harrera egokia ematen ikasi behar dugu sektoreko eragileei zuzendutako prestakuntza eta motibazio jardueren bidez.

12. ATH Bizkaira heltzearekin batera etorriko diren aukerak baliatu behar ditugu. Euro-
parekiko konexioa eta bidaietan denborak murrizteak aldaketa ugari ekarriko ditu.
Esate baterako, turista mota eta bere kontsumo ohiturak ezberdinak izango dira,
oraingoekin alderatuta. Prestatu behar dugu eta gure eskaintza egokitu.

TURISMO AZPIEGITURA ETA EKIPAMENDUEN GARAPENARI BEGIRA

Turismo azpiegitura eta ekipamenduek aukera ematen dute baliabide turistikoak benetako esperientzia turistiko bihurtzeko. Iresgarritasunaren garapenak eta Bizkaiko baliabide turistikoe-tara lotutako zerbitzuek emango dute balio handiko eskaintza osatzeko aukera. Horretarako, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonen beharrezko jo dute honako jarduerak hauek gauzatzea:

1. Seinaleztatzea hobetzea. Turistek herrialdean izan dezaketen mugikortasuna bultzatzeko, ezinbestekoa da hizkuntza ezberdinetan kalitatezko seinaleztatzea egitea.
2. Esperientzia turistikoei begira, mugikortasuna ahalbidetzea eta esperientziak erraztea. Beharrezko jotzen da kortesiazko atrakatzeko areagotzea, aparkalekuak hobetzea eta mugikortasun berriak aztertzea (tren turistikoak, teleferikoak).
3. Ostalaritza eskaintzaren kalitatea hobetzea. Ostalaritza zerbitzuen egokitzea babestea eta hobekuntzak egitea zerbitzuak bisitatzen gaituzten pertsonen beharrietara egokitzeko.

TURISMO SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNAREN GARAPENARI ETA HOBEKUNTZARI BEGIRA

Turismo sektoreak jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren faktore dinamizatzailea ordezkatzeko du eta, aldi berean, tresna indartsua ere bada nazioartekotzea bultzatzeko eta gure herrialdea mundura irekitzeko. Sektorearen lehiakortasuna garatzeko eta hobetzeko, hurrengo ekarpen hauek jaso dira:

1. Lankidetzaren publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren bultzatzea. Sektore pribatua sartu behar da Bizkaiko estrategia turistikoaren planifikazio eta garapenean.
2. Sektorearen profesionalizazioa sustatzea. Aurrera egiten segitu behar dugu prestakuntzan, trebakuntzan eta sektorea etorkizuneko joera berrietara egokitzeko lanean.
3. Teknologia berriek proposamen turistikoaren garapenean eta beren sustapenean duten eragina baliatzea.
4. Kudeaketa lana hobetzea eta on-line merkataritza, gizarte sareen erabilera eta tresna teknologikoen erabilera bultzatzea (QR kodeak, marketing aplikazioak, fidelizazioa eta lokalizazioa, smartphone-erako aplikazioak), horiek denak turismora aplikatzeko.

5. Tokian tokiko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuekin jarduera bateratuak koordinatzea. Eskaintza integrala osatuko badugu, beharrezkoa izango da bokazioa sustatzea eta zerbitzu osagarriak garatzeko gaitasuna.
6. Sektorearen hizkuntza gaitasunak hobetzea. Turistari kalitatezko arreta emateko, ezinbesteko dugu bere hizkuntza hitz egitea, edo, gutxienez, denok ezagutuko dugun hizkuntza, ingelesa, alegia.
7. Bilbao-Bizkaia binomioaren potentziala eta gaitasuna baliatzea, herrialdean sartzeko atea den neurrian. Bisitaria motibatzeke gaitasuna izan behar dugu, Bizkaiak dituen gainerako zerbitzuak ezagutu ditzan.
8. Turismo zerbitzu ilegalak ezabatzea. Halako iruzurrak kontrolatu behar ditugu. Legez kanpoko ostalaritza zerbitzuek ez dituzte enpleguak sortzen, ez dituzte zergak ordaintzen eta kalte ekonomikoa baino ez dute sortarazten. Eskuko telefonoetarako aplikazioak ere ezin ditugu ahaztu, horietako hainbat ilegalak izan daitezkeelako.

KULTURA ETA KULTUR INDUSTRIEN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

KULTURAREN KONTSUMOA SUSTATZEKO

Kultur kontsumoa herrialdearen dinamismo ekonomiko eta sozialari laguntzen dion faktorea da. **BizkaiaGO** mahaietan hainbat ekarpen jaso dira zentzu horretan:

1. "Kultur Bona" deritzonaren egiazko eragina eta eraginkortasuna ebaluatzea. Ikusi behar da eredu hori hobetzen segitu behar dugun ala eraginkorragoa izango ote litzatekeen ikustea kultur industriakoak ez diren laguntasun ildoak garatzea.
2. Kulturaren kontsumoa desmitifikatzea, ez da bat ere elitista eta ez da horrela hartu behar. Kultur kontsumoaren inguruan dauden aurreiritziak eraitsi behar dira, hiritar-goari kultura hurbiltzeko.
3. Kultura bultzatzea gizarte kohesiorako elementu gisa. Pertsonak emozioen bidez mugitzen dira erkidego sentimenduek bultzatuta. Ezinbestekoa da pertsonen sentimenduetara iristea kulturaren emozioa baliatuta.
4. Kultur turismoaren sustapena. Kultur turismoa tokian tokikoaren oinarrian, kultur ekimenak prestatzeko eta antolatzeko lanetan tokian tokiko eragileak inplikatu.
5. Erakundeek tokian tokiko kultur jarduerari ematen dieten babes baloratzea eta sustatzea.

KULTURAREN SUSTAPENA UME ETA GAZTEEN ARTEAN

Ezinbestekoa da kultura gazteen artean sustatzea, klaseak eta kultur irakaskuntza metodoak sustatuz, bultzatuz eta hobetuz. Sentsibilizazioa eta prestakuntza ezinbesteko elementuak dira kultura kontsumitu eta produzituko duten pertsonak nahi baditugu. Gaitasun horiek oinarritik landu behar ditugu, ikastetxeetatik. Zentzu horretan, honako ekimenak proposatu dira:

1. Prestakuntza metodologiak hobetzea. Musika ikasgaiaren curriculumak berriztatu behar dugu erakargarriago egiteko eta ikasleak sentsibilizatzeko. Adibide modura aipatu da Suzuki metodoa.
2. Bokazioa sustatzea. Ez da derrigortu behar, baizik eta gazteen artean kultur garapena sustatzea eta eragitea bilatu behar da.
3. Bizkaiko pertsona gazteek sustatutako jarduera kulturalen garapena babestea.
4. Kultura digitala sustatzea. Gazteak mundu digitalean eta teknologia berrietan murgilduta bizi dira. Kulturaren promozioa hobeto pentsatu eta garatu behar da errealitate berri hori oinarri harturik.

KULTUR PRODUKZIOARI DAGOKIONEZ

Bizkaiko garapen kulturala satatzeak berarekin dakar herrialdeko eragile ezberdinen kultur produkzioak babestea eta sustatzea. Behar honi erantzutea lehenetsi beharrekoa da **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonentzat, eta honako proposamen hauetan dago islatuta:

1. Kulturaren garapenean herritarren kohesioa eta parte hartzea bultzatzea. Ikusita dago gure herri eta hirietako herritarren aldetik zenbat eta parte hartze eta inplikazio handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango dela erakundeen aldetik antolatzen diren kultur eginkizunen arrakasta.
2. Proposamen berritzaileen garapena babestea. Kultur abangoardien aldeko apustua egin behar da, erreferente izan behar dutelako. Horretarako, ezinbestekoa da azpiegiturak egitea eta medioak jartzea.
3. Esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak eta koordinazioa hobetzea. Harreman zuzena izan behar dugu Administrazioaren eta kultur enpresen artean, udalerrri ezberdinetako eta herrialde osoko kultur kudeaketa hobetzeko helburuarekin.
4. Turismoaren erakargarritasunari laguntzea. Kultur ekimen berriak garatzea, sustatzea eta azpimarratzea ezinbestekoa da Bizkaiko eskaintza turistikoa aberasteko eta hobetzeko.

SORMENA ETA KULTUR INDUSTRIEN GARAPENARI BEGIRA

Kultur industriren eta sormen industriren sektorea da garapen ekonomikoa eta enplegu aukerak sortzen dituen sektorea. Honako proposamen hauek aurkeztu dira ahalmen hori baliatuzera begira:

1. Eragile ezberdinen arteko lankidetzaren sustatzea. Ezinbestekoa da sinergia berriak biltzea eta eragilea, sektore ekonomikoari lotutako egitasmoak behar bezala burutzera begira.
2. Sektorearen ikusgarritasuna eta aitortza bultzatzea. Ezinbestekoa da kultur sektorea udalerritik ezberdinetan bultzatzea eta bere balioa azpimarratzea, ekonomian eta gizartean egiten dituen ekarpenak ikusgarri eginez.
3. Kultur esparru eta gizarte zentro berriak sortzea eragitea. Hiritarren zerbitzura egongo diren azpiegiturak behar ditugu, esparru batean kultur diziplina ezberdinak egon daitezkeen eta etengabeko harremana izan dezaten.
4. Kultur esparru berrien eta abangoardiako kultur enpresen garapena sustatzea. Eragozpenik ez jartzea sormen enpresa berriak sortzeko ideien aurrean. Babes ekonomikoaz gain, bestelako babes batzuk ere behar dira.
5. Elkarte, gizarte eragile, kultur teknikari eta abarren katalogoa egitea, sektorearen koordinazio eta lankidetzaren hobetzeko.
6. Teknologia berriak baliatzea, teknologia berrien aprobetxamendua sustatu behar da, kultur enpresen garapen eta sustapenari begira.
7. Sare eta kultur erkidegoak sortzea eta hedatzea bultzatzea.
8. Sektorearen profesionaltasuna hobetzea, kudeaketaren hobekuntza sustatzea, kultur produktore eta kudeatzaileen gaitasun profesionalen bidez.
9. Bizkaira kultur enpresak erakartzea bultzatzea. Ezinbestekoa da bultzagile izan daitezkeen enpresa indartsuak herrialdera erakartzea. Horretarako, inguruko baldintzak hobetu behar ditugu (zerga alorrekoak, azpiegiturak,...)

KULTUR AZPIEGITURAREI ETA EKIPAMENDUEI BEGIRA

Kultur azpiegiturak eta ekipamenduak ezinbestekoak dira kultura bizitzeko. **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonak azpimarratu egin dute ezinbestekoa dela jarduera berriak zehaztea azpiegitura hauei errendimendurik onena ateratzeko, herrialdearen kultur garapenaren eragile diren neurrian. Honakoak dira jaso diren ekarpenak:

1. Tokian tokiko artisten presentzia, lankidetzaren eta mundu mailako azpiegitura eta ekipamenduek eragindako nazioarteko sinergiak sustatzea.

2. Gure kultur azpiegiturak sustatzea. Toki batzuk egon behar dira non kultur adierazpenek beren esparrua eta ekipamendua izango duten.
3. Kaleko jardueraren eta eszenatoki handien ateko oreka bilatzea. Esparru bi hauek elkarren osagarri dira eta potentzialtasun ezberdinak dituzte. Ezinbestekoa da horietako bakoitza behar bezala dinamizatzen jakitea.

ERAKUNDEEN ALDETIK KULTURARI EMATEN ZAION BABESARI BEGIRA

Esparru honetan, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonak azpimarratu dute Administrazioak izan dezakeen egitekoa, herrialdearen kultur garapenaren bultzatzaile gisa den aldetik, eta kultur sektorea babesteko politiken eraginkortasuna eta gardentasuna hobetu beharra adierazi dute.

1. Kirol esparruan erabiltzen diren babes eta sustapen estrategiak erabiltzea. Diru publikoak oinarri kulturala sustatzen eta bultzatzen lagundu behar du.
2. Babes estrategien gardentasuna eta komunikazioa areagotzea. Garrantzitsua da Administrazioak ematen dituen diru-laguntasunak zertan erabiltzen diren jakitea.
3. Erakundeen babesaren efizientzia eta eragina hobetzea. Ezinbestekoa da babesten diren jarduerak sortarazten duten eragina eta ekarpena ikusaraztea eta beren balorea azpimarratzea.
4. Kultur ekimeneak eragiten duten erantzun sozialaren balorea azpimarratzea. Kultur adierazpen batzuk daude ekonomikoki errentagarri izango ez diren, eta Administrazioak horiek babestu behar ditu eta beren errentagarritasun soziala zaindu.

LANDA GARAPEN ARLOAN LEHENETSI BEHARREKOAK

NEKAZAL AZPIEGITURA ETA LURRAREN KUDEAKETARI BEGIRA

Azpiegitura egokiak eta lurra kudeatzeko politika zuzena sektorearen beharrei erantzuna emateko. Horiek ezinbesteko elementu dira Bizkaian lehen sektorearen garapen orekatura begira. Jarraian ematen dira planteatu diren ekimen nagusiak:

1. Lurren permuta eta lagatzea babestea eta ahalbidetzea. Jabe pribatuekin hitzarmenak garatzea bultzatzea basoko lurretako belardiak lagatzera begira.
2. Landa garapenerako elkarleen egitekoa bultzatzea eskualdeetako landa garapenaren erakunde sustatzaile diren neurrian, eta Administrazioarekin bitartekaritza lana egiteko tresna gisa.

3. Lur komunalen ustiapenen arauketa hobetzea. Helburua da lurren lagapena esparru produktibora begira ahalbidetzea eta bultzatzea.
4. Erabilerarik ez duten lurren aprobetxamendu produktiboa bultzatzea. Lurrak alokatzeko egitasmoa sustatzea, Eusko Jaurlaritzak hutsik dagoen etxebizitzak alokatzeko dituen egitasmoen antzekoa.
5. Mahai sektorialak sortzea eta bertan parte hartzea. Ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko gune berriak garatzea.
6. Lur bankuen egitasmoa bultzatzea, ustiapen jardueraren araberako salneurri ezberdinak ezarriz.
7. Bizkaian bultzada ematea hiltegia ezartzeko ekimenari.

GAZTEAK SEKTOREAN SARTZERA ETA BELAUNALDI BERRIEN PARTE HARTZERA BEGIRA

Lehen sektorea eta nekazal esparrua oinarritzko balore dira Bizkaian, eta ez bakarrik egiten duten ekarpen ekonomikoagatik eta enpleguagatik, baizik eta baita herrialdearen nortasun sozialarekin lotura handia dutelako. Gazteak sektorerara hurbiltzea ezinbestekoa da sektorearen iraunkortasuna bermatzeko. Hauek dira **BizkaiaGO** prozesuan jaso diren ekarpenik nagusienak:

1. Karrantza inguruan Nekazal Prestakuntza Institutua sortzea. Prestakuntza ezinbesteko elementua da gazteak nekazal esparruan sar daitezen eta sektorean enplegua aurkitzerik izan dezaten.
2. Gazteak produkzio ekologikoaren esparrura hurbiltzea. Ezinbestekoa da gazteak nekazal esparrura hurbiltzeko ahaleginak egitea eta produkzio ekologikoaren balioa azpimarratzea, ekintzailetza eta aukera esparrua izan daitekeen aldetik.
3. Nekazaritza eskolak ustiategien eguneroko jarduerara hurbiltzea. Nekazaritza esparruak sektoreak dituen beharrianak ezagutu behar ditu produktore gazteengan horiei ekiteko behar dituzten gaitasunak garatu ahal izateko.

KONTSUMO ARDURATSUARI ETA SALMENTA ZUZENARI BEGIRA

Lehen sektoreak kalitatezko produktu ekologikoak eskaini behar ditu, eta merkaturatze bide berriak garatu behar ditu bere lehiakortasuna hobetzeko ohiko produktu eta bideen aurrean. **BizkaiaGO** prozesuan jaso diren ekarpenek zentzu horretan laguntzea bilatzen dute:

1. Salmenta zuzena babestea produktu ekologikoak merkaturatzeko eredu gisa. Helburua da bitartekariak saihestea, bitartekari horiek egoteak produktua garestitzea dakarrelako.

2. Hiritarrak produkzio ekologikoaren inguruan sentsibilizatzea. Ezinbestekoa da produktu ekologikoen nolakotasunaren balioa eta kontsumo arduratsuaren onurak azpimarratzea.
3. Abeltzaintza produktu ekologikoen produkzio eta merkaturatze estrategia berriak arakatzea. Berauen merkaturatzea bultzatzea produktoreen elkarte edo/eta kooperatiben bidez.
4. Transformazio bide berriak garatzea oinarritzko produktuei balio erantsia emateko. Kalitatezko produktu ekologiko berezia eta berezitua baino ezin izango da gaur egungo merkatuan lehiakorra izan.
5. "Label" egiaztagiriez gain, beste kalitate egiaztagiri batzuen bideragarritasuna aztertzea, etxeko ekonomiek horiek kontsumitzeko aukera izan dezaten.
6. Egurraren sektorearen esperientzia baliatzea eta "bertako produktua" egiaztagiria bultzatzea, hurbiltasun eta kalitate berme gisa.
7. Erakunde eta gizarte entitateen aldetik hurbileko produktuen kontsumoa sustatzea. Esate baterako, ikastetxeetan bertako produktuen kontsumoa sustatuz.
8. Gastronomiaren eta nekazal munduaren artean dauden sinergiak bultzatzea. Gure sukaldariak eta beren prestigioa dira bertako produktuen enbaxadore eta preskriptorerik nagusienak.

NEKAZAL ESPARRUAN BIZITZA KALITATEA HOBETZERA BEGIRA

Nekazal esparrua da bizitza sozial eta ekonomiko propioak dituen herrialde zatia. Nekazal esparruko bizitza kalitatearen hobekuntzak era orekatuan aurrera egin behar du, herrialde osoaren bizimodua hobetzen den neurri berean. Arlo honetan aurrerako pausuak eman direla onartuta ere, **BizkaiaGO** bileretan honako jarduerak proposatu dira:

1. Larrialdi zerbitzuak ahalbidetuko dituen geolokalizazio sistema ezartzea.
2. Nekazal inguruan arrakala digitala txikitzeko lana egitea, banda zabalaren hedakuntza ahalbidetuz. Horretarako, beharrezkoa da lankidetzan aritzea eragile ekonomikoekin eta erabilerekin.
3. Administrazioen aldetik nekazaritza instalazioetan gutxieneko zerbitzuen sarera sartzeko aukerak bermatzea (argindarra, ura, telefonoa). Zentzu honetan, ezinbestekoa da zerbitzuak ematen dituzten enpresen aldetik sareak hedatzea bultzatzea.

INGURUMENA ZAINZEARI ETA LURRALDEAREN KUDEAKETARI BEGIRA

Ezinbestekoa da ingurumena zaintzearen eta Bizkaiko eskualde ezberdinetako lehen sektorearen garapenaren artean oreka bat bilatzea. Ezinbestekoa da herrialdea era estrategikoan kudeatzea, eta helburu horretarako, epe luzerako ikuspegia baliatzea. Honako hauek dira **BizkaiaGO** prozesuaren baitan esparru honetarako egin diren ekarpenak:

1. Parke naturalen kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapean uztea eta transferentzia hori bultzatzea.
2. Paisaia katalogoak garatzea. Bitartekoak jarri behar dira gure paisaia zaintzeko eta daukan balioa aintzat hartzeko.
3. Energia berriak sortzeko era berriak arakatzea, besteak beste, biomasaren aprobetxamendua. Horretarako behar dugu eskuragarri dauden baliabideen ezagutza sakona garatzea eta ustiapenak ingurumen alorrean eta teknologikoki eta ekonomikoki duen bideragarritasuna aztertzea.
4. Sektore honetan I+G kontzeptuan egiten den ahalegina bultzatzea, ingurumenaren eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko estrategia gisa.
5. Bertako espezieen basoko produkzioa sustatzea, ustiategi publikoetan zein esparru pribatuko ustiategietan.

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA ARLOAN LEHENETSI BEHARREKOAK

HEZKUNTZA SISTEMARI BEGIRA

Hezkuntza sistemak hiritargoaren zerbitzura egon behar du, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta kohesionatuagoa lortzeko helburuarekin. Kalitatezko sistema eraiki eta garatu behar da, inklusiboa eta epe luzera begira. Gure gizartearen eta gure Herriaren etorkizuna bideratuko ditugun hezkuntza politikoen mende egongo da. Jarraian daude **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu dutenek esparru honetarako egin dituzten ekarpenak:

1. Hezkuntza sistema oraingo erronketara egokitzea bultzatzea eta sistemari babesa ematea. Hezkuntza sistemaren helburua da lan bizitzarako hezteak, baina horretarako ere, bizitzeko hezi beharra dago.
2. Epe laburrerako eta epe luzerako planifikazioa konbinatzea, une honetan eta etorkizunera begira izan daitezkeen beharrei erantzuteko.

3. Bikaintasunezko ekitatea bultzatzea. Kontua ez da hobeak izateko heztea, beste helbururik izan gabe. Bikaintasuna da helburua, bikaintasuna denentzat.
4. Familiak heziketa prozesuan duten egitekoa azpimarratzea. Ikasgeletan egiten denaz gain, beste esparru batzuetan ere hezten da; familiak hezi behar du. Ezinbestekoa da hezkuntza sistemaren eta familiaren arteko ardurakidetasuna bultzatzea.
5. Baloreetan heztea. Baloreetan bizitzea eta balore horiek izan daitezela "ikastetxeko kulturaren" parte bat eta bizi garen gizartearen parte bat. Hezkuntza erkidegoa osatzen duten pertsona guztiak (ikasleria, irakasleria eta familia) balore horiek ezagutu eta partekatu behar dituzte.
6. Esfortzuaren kultura berreskuratzea. Oraingo krisia aukera izan daiteke gure eredu berriz pentsatzeko, esfortzuaren kultura berreskuratzeke, "indarberritzeko".
7. Heziketa prozesuetan balore berriak txertatzea, gizarte gisa hobetzen jarrai dezagun. Balore berriak landu behar ditugu, besteak beste, berrikuntza eta sormena, eta gaitasun berriak garatu behar ditugu etorkizunak ekarriko dizkigun erronka berriei aurre egiteko.
8. Euskal hezkuntza eredu bultzatzea. 7 euskal herrialdeen arteko itun politikoa bultzatzea hezkuntza eredu propioa sortzeko, eredu orekatu, egonkor eta adostua izan dezagun.
9. Sistemaren emaitzak eta eraginkortasuna neurtzea. Sistema osoan ebaluatzeko kultura ezartzea, helburu nagusia etengabeko hobekuntza izango delarik.
10. Hezkuntza sistemako eragile ezberdinen beharrak ezagutzea. Beharizan horiek aztertzeari ekitea hezkuntza politikak behar bezala egituratzeko.

IKASLERIARI BEGIRA

Hezkuntza sistemak izango dituen erronkei aurre egiteko, langile prestatu eta kualifikatuak beharko dira, ikasleriari ezagutzak bereganatzeko prozesuan biderik onenak erabiliz eta ikasleen prestakuntza eta garapenena bideratuz. Aldi berean, bokazioa, inplikazioa eta konpromisoa duten profesionalak behar dira, beren ikastetxearen lana etengabe hobetzeko. Honako hauek dira esparru honetan jaso diren ekarpenak:

1. Irakasleen sentsibilitatea eta egoeretara moldatzeko gaitasuna sustatzea. Enpatia sustatzea eta baloreetan hezte bilatu behar da.
2. Lidergo pedagogikoa eta irakasleek hezkuntza sistemaren barruan eragile izateko duten egitekoa lantzea.
3. Irakasleek gizartearen parte izateko egitekoa bultzatzea eta beren duintasuna goratzea. Irakaslearen figura berreskuratzea behar dugu. Gizarte mailan izan duen prestigioa berreskuratzea beharra dago.

4. Heziketaren aldeko gizarte akordio zabala garatzea, eta honen barruan gizarteak argi izan behar du irakasleriaren egitekoa funtsezkoa dela.
5. Familiak lan honetan integratzea, hezkuntza egitasmoaren parte direla senti dezaten.
6. Euskal hezkuntza sistemaren balioa azpimarratzea. Irakasle eskoletan hasita eta Euskadikoa moduko goi mailako hezkuntza sistemaren barruan egoteak ematen duen harrotasuna bultzatuz.
7. Irakasleak ebaluatzea. Irakasleria da hezkuntza sistemaren barruan ebaluatzen ez dugun elementu bakarra, eta hori egin beharko genuke sistema osoa hobetu ahal izateko.
8. Irakasleen, zuzendaritza taldeen, tutoreen eta hezkuntza sistemaren beste profesional guztien etengabeko prestakuntza sustatzea. Ezinbestekoa da sistema osatzen dutenak prestatzen segitzea, oraingo erronkei aurre egin diezaiegun.
9. Irakasleek ingeles hizkuntzan dituzten gaitasunak hobetzea. Ahal den neurrian, aurrekontuak eta irakasleen batz besteko adina kontuan hartuz. Langileak liberatzea aurreikustea, ingelesa ikas dezaten.

IKASTETXEEI BEGIRA

Adostasun bat dago ikastetxeen kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendua egokitu beharra izatearen inguruan eta ikastetxeen eta beste eragileen arteko lankidetzak bultzatzeko beharrari dagokionez. Ezinbestekoa da sare lana indartzea, ikastetxeen autonomia areagotuz, familien parte hartzea sustatuz, jarduera berritzaileak garatuz eta ikastetxe eta enpresen arteko harremana babestuz, bereziki enpresa txiki eta ertainekin.

1. Ikastetxeei autonomia ematea. Ikastetxeek autonomia handiagoa izan behar dute, eta ez bakarrik kudeaketa alorrean, baizik eta baita pedagogiaren ikuspuntutik, ingurura hobeto moldatzen direla bermatzeko.
2. Ikastetxeko hezkuntza egitasmoan familien parte hartzea bultzatzea. Ikastetxe egitasmoa familiei ere aurkeztea, familiek ere hezkuntza egitasmoa onar dezaten.
3. "Ikastetxearen kultura" lantzea. Elkarrekin jardun behar da, irakasleek, ikasleek eta familiek ikastetxearen hezkuntza eredua, heziketa dinamikak eta oinarrizko baloreak partekatu ditzaten.
4. Ikastetxeen eta unibertsitatearen arteko harremana hobetzea. Hezkuntza egitasmoak ezagutzea eta partekatzea. Unibertsitatean irakasleak prestatzeko erabiltzen diren hezkuntza sistemak ez daude koordinatuta ikastetxeetan lantzen diren hezkuntza sistemekin.
5. "Ikuskatzailearen" figuraren balioa azpimarratzea. Bere lana ez da soilik ikuskatzea, baizik eta baita ikastetxeko zuzendariari laguntzea eta aholkularitza eskaintzea.

6. Ikastetxe, gizarte zerbitzu eta osasun sistema osoaren arteko koordinazioa sustatzea. Esparru ezberdinen arteko lankidetzak loturak ezarri behar ditugu, hezkuntzarako material eta programa integralak sortzea eta garatzea sustatzeko.
7. Ikastetxeetako instalazioak hobetzea eta optimizatzea. Ikastetxeei ekipamendu eguneratua ematea eta instalazioak egokitzea.
8. Irakasleen iritziak kontuan hartzea, instalazio berriak eraikitzeke egitasmoak garatzeko orduan. Lan bat proiektatzen denean, irakasleen balorazioak eta iritziak kontuan hartzea, ikasleak direlako instalazioen erabilera praktikoa bizi dutenak eta beren potentzialitateak ezagutzen dituztenak.
9. Enpresa eta ikastetxeen arteko hurbilketa bultzatzea.
10. Lanbide Heziketa bultzatzea, gure produkzio sektoreen lehiakortasunerako oinarriko tresna gisa.
11. Enpresei pizgarriak eskaintzea praktika bidezko ikaskuntza errazteko, lan mundurako behar den prestakuntza ona jasotzen dutela bermatzeko.

HEZKUNTZA METODOLOGIEI ETA TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERARI BEGIRA

Akordio bat dago hezkuntza alorrean berrikuntza handiari ekiteko dagoen beharrezanaren inguruan. Ezagutza guztia eta giza baliabideak, materialak eta funtzionalak partekatutako egitasmoaren zerbitzura jarri behar dira eta XXI. mendean izango ditugun erronkei egokitu beharko dira. Behar dena da hezkuntza sistema bikaintasun eta berrikuntza motore bihurtzea, berme osoz XXI. mendeko hezkuntzak dakartzan erronkei ekiteko.

1. Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza sustatzea. Ezarritako eskuduntzak lantzea eta garatzea, euskal esparruan zein Europar Batasunari begira.
2. Ikasleriaren gaitasun indibidualen garapena sustatzea. Pertsona guztiek dituzte beren gaitasunak eta nolakotasunak, eta oinarritzkoa da ume bakoitzari bereak ikusaraztea eta lantzen irakastea.
3. Heziketa prozesuan teknologia berriak eraginkortasunez erabiltzen direla bermatzea. IKT-ak baliatu behar dira gure irakaskuntza metodologiak hobetzeko.
4. Norbanakoaren gaitasunak eta gaitasun sozialak sustatzea, bizikidetzak positiboak bultzatzeko: pentsatzen eta ikasten ikastea, komunikatzen, erabakiak hartzen eta ekintzaile izaten eta parte hartzen ikastea, arazo eta gatazkei irtenbideak bilatzen ikastea, sormena eta jakin-mina lantzen ikastea; taldean bizitzeko gaitasunak eskuratzeko, besteak beste, lankidetzak, solidariotasuna, norberaren estimua, enpatia; aldi berean, justiziaren zentzua garatzen laguntzea.

5. Ikasleria lan mundurako prestatzea. Hezkuntza eta lan munduaren arteko ulermena lortzeko bide berriak arakatu behar ditugu, gizarteak eta esparru sozio-ekonomikoak izan ditzakeen beharrei irtenbide egokiak bilatzeko.
6. Ikasleria ebaluatzeko dinamikak hobetzea. Ebaluazioa hobetzeko ezinbesteko elementua dela ikusirik, ebaluazio probak aldatzea proposatzen da, emaitza erreala-goak eskainiko dituzten metodologia berriak erabiltzeko.
7. Eskolako jarduna murriztea edo eskolaz kanpoko ekintzak ordutegi horiekin bateratzea. Arratsaldeko orduak ez dute ezertarako balio eta ikasleek ez dute atsedena hartzeko denborarik. Jolasteko eta atsedena hartzeko denbora behar dute.
8. Prestakuntza eskaintza moldatzea. Gaueko ikastaroak edo asteburuko ikastaroak, on-line ikastaroak, haurtzaindegi zerbitzuak eskaintzen dituzten ikastaroak eta beste ekimen batzuk lan mundua eta familia prestakuntzarekin uztartu ahal izateko.

BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKUNTZARI BEGIRA

Pertsona guztiek izan behar dute bizitza osoan zehar ikasteko aukera, hezkuntza sistema barruan zein sistematik kanpo, bakoitzak bere gaitasunak lortzeko, eguneratzeko, osatzeko eta handitzeko aukerak izan ditzan, bere garapen pertsonalera eta profesionalera begira. Jarraian, hona hemen zentzu horretan jaso diren ekarpen batzuk:

1. Prestakuntza eskaintza ezagutzera ematea. Udalerri mailan eta eskualdean eskaintzen diren prestakuntza jarduerak hedatzea eta komunikatzea.
2. Prestakuntza mistoa baliatzea (on-line eta presentziala) bizitza osoan zeharreko ikaskuntza bultzatzeko.

ENPLEGU ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

AUTOENPLEGUA ETA ENPRESA BERRIAK SORTZEA BABESTEARI BEGIRA

Argi ikusten da zein garrantzitsua den Bizkaian pertsona ekintzaileak izatea. Pertsona hauek bizkaitar gizartearen esker ona eta aitortza ez ezik, erakundeen babesa ere behar dute beren egitasmoak errealitate bihurtzeko eta enplegu berriak sortaraz ditzaten. Horretarako, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonak honako jarduerak hauek lehenetsi dituzte:

1. Espiritu ekintzailea behetik garatzea. Etxean ikasi behar da ekintzailtzan, eskoletan, lanbide heziketa zentroetan, unibertsitatean,...
2. Gizarte ekintzailtza sustatzea. Gizarte kohesionatu eta solidarioan, gizarte ekintzailtzak aberastasuna sortzen du eta gizarte beharrak asetzen ditu. Laugarren sektore hau garatu behar dugu bere errealitateak behar dituen tresnekin.
3. Ekintzaileei ematen zaizkien zerbitzuei eta aukera eta arrakasta kasuei buruzko informazio zabalagoa eta hobea ematea.
4. Prestakuntza jardueretan negozio berrietarako sormen moduluak txertatzea. Sormena ezinbestekoa da egitasmo berritzaileagoak eta hazteko potentzial handiagoa duten berritzaileak garatzeko.
5. Enpresa berriak finkatzen laguntzeko zerbitzuak indartzea. Sortu berri diren enpresek laguntasun berezia eta handia behar dute beren lehen urteetan (gutxienez lehen hiru urteetan) biziraupen tasa altuak lortzeko eta, kasu askotan, hazkundera eta enplegu berriak sortzea eragiteko.
6. Enpresa esparruaren eta prestakuntza zentroen arteko loturak sustatzea, aukera berriak, negozio ideiak eta ekintzailtza egitasmoak garatzeko merkatu esparruak identifikatzeko lankidetzara sareak sortzeko.
7. Ekintzaileari jartzen zaizkion oztopoak ezabatzea. Tramiteak sinplifikatu behar zaizkio beren lanpostua sortu nahi dutenei.
8. Enpresa barruko ekintzailtza sustatzea. Ezinbestekoa da gure enpresen barruan ekintzaileei aitortza eta babesa ematea.

PRESTAKUNTZARI BEGIRA

Adostasun handia dago Bizkaiko pertsonen gaitasunak eta trebakuntzak duen garrantziaren inguruan. Norberaren garapenak duen balioaz gain, ezagutzaren gizartean prestakuntza da epe luzerako enplegua izateko berme bakarra. Bizkaiko prestakuntza hobetzeko eta eragin-korrako egiteko xedez, hona hemen egin diren proposamenak:

1. Unibertsitateak eta lanbide heziketa zentroak enpresen beharretara hurbiltzea. Enpresek etorkizunean beharko dituzten profesionalen profila ezagutu behar da, prestakuntza edukiak eta ibilbideak horren arabera egokitzeko.
2. Enpresetan prestakuntza praktikak bultzatu eta ahalbidetu behar dira. Ezinbestekoa da Bizkaiko enpresetan pertsona gazteen kontratazioa erraztea.
3. Prestakuntza praktiken kalitatea hobetu behar dugu. Horretarako, bi helburu osagarri bilatu behar ditugu. Alde batetik, praktikek hezkuntza ibilbidea osatu behar dute prestakuntza alorrarekin zerikusia duen lan esperientziarekin eta, beste alde batetik, profesional berrien enplegarritasuna eta lan munduratzeko hobetzea.

4. Prestakuntza zentroyen potentziala baliatzea. Ikastetxetik bertatik gazteen ekintzailetza babestea eta sustatzea bilatzen da.
5. Eskualdeko enplegu mahaiak bultzatzea. Lan mahaiak sortzea zeinetan erakundeek, enpresek, Lanbide Heziketa zentroyek parte hartuko duten epe ertain eta luze-rako estrategiak aztertzeke eta zehazteke.
6. Langabezian dauden pertsonei zuzendutako prestakuntza bultzatzea eta laguntzea. Bizkaian, prestakuntza gabeziak dituzten hamar langabeen artetik seik gabeziak dituzte prestakuntza alorrean. "Giza kapitala" deritzona prestatu behar dugu suspertze ekonomikoari ekiteke eta inor suspertze horretatik kanpo gera ez dadin.
7. Flexi-segurtasun ereduetan aurrera egitea. Iparraldeko herrialdeetan, esparru honetan erreferente diren horietan, langabeak prestatzen dituztenek eta estatu mailako enplegu agentziek profil profesionalagoa dute eta langabeei prestakuntza alorrean orientazioa ematen diete tutore batzuen bidez.

ENPLEGUARI BEGIRA

1. Eskualde mailan txostenak egitea langabezian dauden pertsonei profil profesionala adierazita. Eskualdeko profesionalak kontratatzea lehenetsi nahi badugu, eskualde bakoitzeko enpresek informazio egokia eta eguneratua izan behar dute eskura.
2. 45 urtetik gorako pertsonei lan mundura itzultzea sustatzea eta beren lan esperientziaren balioa kontuan hartzea. Enpresek ez lukete alferrik galdu behar pertsona hauek duten ezagutza eta esperientzia.
3. Eragile ezberdinen arteko elkarrizketa sustatzea. Solaskidetza soziala behar da erakunde, enpresa eta eragile sozialen artean.
4. Ahalegin bereziak egitea RGI izeneko laguntasunak jasotzen dituzten pertsonei lan munduan sartzeko.
5. Lan munduan ikaskuntza eta motibazioa bultzatzea. Industria ulertzea eta ikaskuntza kultura falta zaigu. Bakoitzak enpresari berea eman behar dio berak egiten duen lanaren bidez, lanorduen truke soldata jasotzera mugatu barik.

SUSTAPEN EKONOMIKORAKO ERAKUNDEEN EGITEKOARI BEGIRA

1. Gobernu estrategia eta plan guztietan enplegua eta suspertze ekonomikoa lehenetsia. Eskualde garapenak eskatzen du tokian tokiko politikariek beren agenda politikoan lehenetsi beharreko jardura gisa "enplegua eta garapen ekonomikoa" sartzea.

2. Behargintza guneen eta garapen agentzien balioa azpimarratzea eta egiten duten lana ikusgarri egitea. Erakunde horiek izan behar dute enplegua dinamizatzeko tresna, aldi berean, eskualde bakoitzeko ezagutza sozio-ekonomiko iturri gisa finkatuz.
3. Eskualde mailako garapen agentziak enpresen modernizazio, lankidetzeta eta garapen bultzatzaile gisa erabiltzea bultzatzea eta, aldi berean, Bizkaiko eskualdeen garapen orekaturako.
4. Agentziek esparru publiko eta pribatuaren arteko dinamizatzaille gisa duten egitekoa bultzatzea. Garapen agentziek eragile guztien arteko harreman eta sinergien garapena ahalbidetu eta erraztu behar dute, eta beraiek izan behar dute, beharrak eta aukerak bateratuz, garapen ekonomikorako egitasmoak zehaztuko dituztenak, zeinetan balio erantsiko produktu eta zerbitzu berritzaileak lehenetsiko diren.
5. Egitura mailako egitura eta organoak berrantolatzea, jarduera guztiak eskualde bakoitzean garapen ekonomikorako zehaztuko den estrategiaren arabera bultzatzeko eta lerrokatzeko.

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI BEGIRA

1. Enpresa txiki eta ertainak sektore bultzatzaile, jasangarri eta Bizkaiarentzat interesgarriak direnetan sustatzea eta garatzea babestu behar dugu. Arlo hau lehenetsi beharrekoa da, enpresa hauek baitira enplegu gehien sortarazten dituztenak.
2. Beharrezko jotzen da enpresen dimentsioa lantzea. Haziko diren enpresak beharko ditugu, enplegu gehiago sortaraziko dituztenak.
3. Industria alorreko enpresak babestea balio erantsi sortzaileak diren neurrian eta, ondorioz, kalitatezko enplegua sortzen dutela kontuan harturik. Beren lehiakortasuna hobetzen segitu behar dugu Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzea bultzatzeko duten gaitasuna indartzeko eta hornitzaile katea dinamizatzeko.
4. Enpresa handiek azpikontratatzten dituzten enpresa txiki eta ertainen sareari eman diezaioketen bultzada teknologikoa babestea, bezero eta hornitzaile arteko hitzarmenak sustatuz.
5. Lan harreman berriak bultzatzea. Enpresa eredu berria egituratzeko bidea hartu behar dugu, zeinetan langileek parte hartuko duten eta, jokaera ekintzailea dela bide, enpresa helburu izango duten.
6. Enpresa eredu berriak babestea. Enpresa berritzaile eredu berriak bultzatu eta sustatu behar ditugu lankidetzan, autogestioan eta talde lanean oinarrituta.
7. Lur industrialaren garapen handiagoa eta erabiltzen ez den lurzoru industrialaren berriskuratzea, enpresa proiektu berriak sustatzera begira.
8. Enpresa txiki eta ertainei laguntasuna eta babesa emateko tresna berriak garatzea. Gaur egun lan ildo garrantzitsuak dauden arren, enpresen dinamizazio esparru

zabala dago oraindik babesa behar duena, hau da, industria azpiegituren finantza-ketarekin eta zirkulatzailaren bidez, abalak emanaz, esportazio lanetarako kanpoko ezarpenak lagunduz, nazioarte mailako zerbitzu juridikoak martxan jarritz, eta abar.

9. Bizkaia barruan enpresen lankidetzat bultzatzea berrikuntza, nazioartekotzea eta negoziarako behar diren teknologien erabileraren esparruan.
10. Kluster politikari eustea eta babesa ematea. Klusterrak ezinbesteko tresna dira Bizkaiko enpresen garapenerako. Beren funtzio nagusia da sektorearen dinamizazioa eta lankidetzat, berrikuntza eta gure enpresen nazioartekotzea.
11. Nazioartekotzea bultzatzea. Erakundeek nazioartekotze misioak antolatu beharko dituzte enpresen nazioartekotzea ahalbidetzeko eta bultzatzeko. Aldi berean, nazioartekotzea ere tokian tokiko enpresen arteko aliantza-sorburua ere izan ohi da.
12. AHT Bizkaira heltzeak dakartzan aukerak baliatzea. Herralde barruko garraio denborak murriztuko dira eta hobetu egingo da Madril eta Parisekiko konektibotasuna; horrek bultzatuko ditu herralde osoaren dinamismo enpresariala eta garapen ekonomikoa.
13. London hiriarekin dauden harreman eta komunikazioak hobetzea. London hiria da Britainia Handiko eta Europar Batasuneko hiririk eta hirigunerik nagusiena. Hiri horiekiko lotura hobeak bultzatu behar ditugu, Bizkaiko enpresa eta pertsonentzat sinergia eta aukera berriak garatzea ahalbidetzeko.

BERRIKUNTZA ETA SEKTORE BERRIEI BEGIRA

1. Aukera gune berriak identifikatzea. Behar-beharrezkoa da Bizkaian enplegua sortzeko eta enpresa egitasmo berriak garatzeko potentziala duten merkatu gune berriak identifikatzeko eta babesteko azterlanak egitea.
2. Gure industria defendatzea. Ezinbesteko dugu sektore industrialaren garapena bultzatzea, eta horretarako epe luzerako ikuspegia baliatzea. Industria da herraldeko ekonomia bultzatzeko orduan, indarrak handiena izan dezakeen sektoreetako bat.
3. Eskualde bakoitzean espezializazio estrategia zehaztea. Eskualde bakoitzeko garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko sektoreak zein diren identifikatzea. Horretarako, ezinbesteko dugu eskualdeko eragile guztiekin hausnarketa prozesu ireki eta partekatuak egitea, bakoitzaren indarrak eta aukerak aztertuz eta bakoitza espezializatuko den sektoreak zehaztuz, horietan oinarrituta herralde osoaren etorkizuna eraikitzeko.
4. Energia jasangarri eta iraunkorren esparruan egon daitezkeen aukerak baliatzea eta bultzatzea. Esate baterako, biomasa-pelletak egitea sustatzea.
5. Turismo sektoreari ahal den errendimendu eta aprobetxamendurik handiena ateratzea. Eskualde bakoitzeko baliabide turistikoaren aprobetxamendua bultzatzea eta turismo zerbitzu eta esperientzia berriak babestea.

6. Egiten dakiguna egin behar dugu, diseinua baliatuz eta produkzio kate amaierako produktu gehiago eginez. Garrantzitsua da amaierako produktuak izatea eta balio erantsia izatea.
7. Enpleguaren sorrerari eta eskualdeko garapen ekonomikoari lagundu ahal dioten enpresak eta enpresa egitasmoak erakartzea bultzatzea. Eskualde ezberdinetan ekonomia dinamizatzeko potentziala izan dezaketen egitasmoak eta enpresak ezartzen lagundu behar dugu.
8. Sektore tradizionalen inguruan jarduera berritzaileak garatzea bultzatzea, hibridazio proiektuen bidez. Esate baterako, arrantza sektorearekin zerikusia duten turismo esperientziak garatzea (Iparraldeko Hegaluzearen Interpretazio Zentroa).
9. Europa mailan eta mundu osoan izan daitezkeen praktika onak aztertzea, Bizkaira ekar daitezkeen sektoreak garatzeko esperientziak eta egitasmoak identifikatzeko.
10. Industria digitalaren garapena bultzatzea. Sektore honen potentziala lehenetsi behar dugu, Big Data eta Open Dataren esparruan ahalegin berezia eginez. Zentzu honetan, esperientzia erudugarria da "be interactive" izenekoa.
11. Sektore tradizionalak sektore teknologiko berriekin uztartu behar ditugu. Softwarea eta hardwarea konbinatu behar dira. Horretarako, oso egokiak dira automobil eta osasun sektoreak.
12. Automozio sektorean metatzen den ezagutza baliatzea. Sektore honek bultzatzaile izateko duen boterea baliatu eta kapitalizatu behar dugu, horri lotutako sektoreetan enpresa egitasmoak garatzea bultzatuz eta babestuz.
13. Automozio sektoreko nazioarteko taldeak Bizkaira erakartzeko lana bultzatzea. Beste enpresentzat bultzatzaile izan daitezkeen enpresa indartsuak erakarri behar dira. Horretarako, herrialde mailako eskaintza sendoa garatu behar dugu eta inguruko baldintzak hobetu behar ditugu (zerga alorrekoak, azpiegiturak,...).

NEURRI TXIKIKO MERKATARITZARI BEGIRA

Hiriguneko edo hurbileko merkataritza ezinbestekoa da Bizkaiarentzat, funtsezko elementua da, aberastasuna ematen du eta behar beharrezkoa da tokian tokiko ekonomiaren eta enpleguaren egonkortasun eta dinamismorako. Zentzu horretan, honako proposamen hauek jaso dira:

1. Hausnarketa egitea merkataritzak udalerrri bakoitzean duen egitekoaren inguruan, tokian tokiko behar nagusienak identifikatzeko eta horien inguruan babes estrategiak garatzeko.
2. Lankidetzak bultzatzea. Merkataritza sektoreak estrategia bateratuak landu behar ditu hiritargoari eskaintza osoa eskaintzeko.

3. Herrialde mailan garatzen diren eginkizunek merkataritza sektoreari ematen dioten bultzada baliatzea.
4. Turismoaren eta merkataritzarren artean sortzen diren sinergiak baliatzea. Flexibilizatzea eta eskaintza komertziala bisitarien beharretara egokitzea. Turismoak berekin dakarren bultzada ekonomikoa baliatu ahal izateko, ezinbestekoa da eskaintza komertzial hau bisitarien beharrei eta ohiturei egokitzea, bertako biztanleriaren behar eta ohituretara mugatu beharrean.
5. Dinamizazioaren aldeko apustua egitea. Bezeroak gure dendetara erakarri behar ditugu "hiriguneko merkatal zentroak" sortuz, ohiko "merkatal zentroekin" lehiatuko direnak.

BIDE AZPIEGITURA ETA GARRAIO ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

BIZKAIKO GARRAIO PUBLIKOARI BEGIRA

Garraio publikoaren azpiegiturak eta zerbitzuak ezinbesteko elementu dira hazkunde ekonomikorako, lehiakortasun hobekuntzarako eta Bizkaiko enplegura begira. Kalitatezko garraio zerbitzuen garapenari laguntzeak eskualde ezberdinen arteko kohesioa eta garapen orekatura bermatzen du. Jarraian, hauek dira **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonen alor honetarako egin dituzten ekarpenak:

1. Intrusismo profesionala eta Uber moduko zerbitzu alternatiboek egiten duten lehiakortasun desleiala saihestea.
2. Taxien kontrol eta ikuskaritzak Bizkaia osoan egitea, Bilboko kasua erreferentziatzat hartuz.
3. Getxoko Portuko taxi zerbitzua hobetzea. Zerbitzu arautua ezartzea eta Loiuko aireportuan egiten den bezala, lizentzia kopuru zehatz eta murriztu baten bidez.
4. Eskola-garraio zerbitzuen kalitatea handitzea. Zerbitzuaren kalitatea eta enpresak sektorean duen esperientzia lehenetasunezko irizpide izan daitezten esleipenen balorazioa egiterako orduan.
5. Autobus eta taxiak moldatzen laguntzea. Enpresei laguntzak ematea eskola garraiorako erabiltzen diren ibilgailuei exijitzen zaizkien segurtasun arauak betetzetik izan dezaten.
6. Tranbiaren erabilera bultzatzea. Tranbiak lehenetasuna izan behar du semaforoetan bere ibilbide osoan, garraiatze-denboren fidagarritasuna bermatze aldera.
7. Garraio jasangarriagoa bultzatzea. Garraioaren efizientzia hobetzea, kutsakorrek ez diren ibilgailu elektrikoak erabiliz.

FORU ERREPIDE SAREARI BEGIRA

Azpiegiturak eragin zuzena dute herrialdeen garapen sozial eta ekonomikoan. Ezinbestekoa da herrialdearen oreka eta mugikortasun jasangarria ikuspuntu estrategikotik bultzatzea. Aurrerentzako mugak jarri behar zaizkien egoera honetan, ezinbestekoa da beharrezkoak diren azpiegiturak zein diren ezartzea, lehenetasun, jasangarritasun eta eraginkortasun irizpideak gogoan. Honakoak dira **BizkaiaGO** ekimenaren barruan esparru honetarako aurkeztu diren ekarpenak:

1. Errepideen egoeraren inguruko informazioa hobetzea. Teknologia berriak baliatzea errepideen inguruko guztien berri emateko: errepideak okupatuta, istripuak, lanak, eta abar, ibilbide alternatiboak hartzeko eta auto pilaketak murrizteko.
2. Foru eta udal errepideen mantentzea bermatzea. Kalitatezko errepideak izatea lehenetasuna da istripuak prebenitzeko orduan.
3. Denontzako udal legeria bultzatzea, gaineke pasabideak eta badenak eratzeko, instalatzeko eta erabiltzeko orduan.
4. Barik garraio txartela Euskadiko garraio zerbitzu guztietara zabaltzea.
5. Bi gurpildun ibilgailuentzako hesiak instalatzea eta mantentzea.
6. Bizkaiko mendebaldean Hegoaldeko Saihesbidea egitea, AP-68 autobidearekin lotzea ahalbidetzeko.
7. Nerbioi itsasadarraren alde biak komunikatzeko azpiegitura berriak garatzea. Erroteregiko zubiaz aparte, itsasadarraren alderdi bien artean gurpileko komunikaziorako beste bideak bultzatzea eta itsasadarraren eskuinaldean Leioara eta Unibertsitatera joango den tranbia egitea sustatzea.
8. Bilboko Portuari dagokionez, Serantes tunelaren bidez tren bidezko komunikazioa bultzatzea, Portuari lehiakortasuna emango dion elementu gisa.

KIROL ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

KIROLA GIZARTEAREN GARAPENERAKO TRESNA GISA

Kirola da gizarte aurreratuenen adierazpenik esanguratsuenetakoa. Estrategikoa da gizarte baten garapen harmonikoan, funtzio garrantzitsua du hezkuntza esparruan, ekonomian, aisian, turismoan, eta herrien nortasunean eta osasunean eta bizitza kalitatean duen oihartzuna ahaztu gabe. **BizkaiaGO** ekimenaren barruan honako proposamen hauek egin dira:

1. Kirol ikastaroen eskaintzaren koordinazioa hobetzea, beste jarduera batzuekin bateratu ahal izateko.
2. Boluntariora sustatzea. Gizartearen konpromisoa bultzatu behar dugu eta kirol esparruan ere boluntariora sustatu.
3. Kirol jarduerak erraztea. Oreka bilatu behar dugu lege eta segurtasun araudien artean, kasu batzuetan oztopo burokratiko izaten baitira kirol jarduerak praktikatu nahi direnean.
4. Kirol esparruko begiraleen prestakuntza bultzatzea. Prestakuntza ere irizpide esanguratsua izan dadila kirol erakundeei diru laguntasunak emateko orduan.
5. Bizkaiko gazteen artean kirola, ohitura osasungarriak eta elikadura egokia sustatzeko kanpainak garatzea.
6. Kirol praktika sustatzea gizarte bazterketa arriskuan egon daitezkeen pertsonen eta gizarte taldeen kohesio eta integratzearako elementu gisa.
7. Kirolaren eta turismoaren arteko sinergiak baliatzea. Bizkaia turismo esparruko baliabide kalitatezkoa ditu kirol arloan kalitatezko turismo produktuak garatzeko.
8. Bizkaiko eskualde ezberdinetan kalitatezko kirol ekimenak babestea eta sustatzea.
9. Kirol esparruko enpresen garapena eta lehiakortasuna babestea.
10. Kirol mundua ekintzailatza esparru gisa. Kirolaren inguruan sor daitezkeen aukerak baliatu behar ditugu negozio eredu berritzaileak garatzeko.

ESKOLA KIROLARI BEGIRA

Parte hartzaileek ia aho batez esan dute kirola izaera sozial, kultural eta heziketa esparruko elementua dela eta, neurri handi batean, haurtzarotik bizitza kalitatea eta osasun eragilea ere badela. Zentzu honetan, ezinbestekoa da garapen orekatua ekarriko duen eskola kirol eredia izatea, neska-mutilei aukera berdinak emango dizkiena. Helburu horrekin, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu dutenek honako ekarpenak proposatu dituzte:

1. Eskola kirolen eskaintza askotarikoa bultzatzea, kirol nagusiez aparte (futbola, saskibaloia, txirrindularitza) kirol alternatiboen praktika sustatuz.
2. "Multikirolak" izeneko moduko ekimenak bultzatzea. Era honetako jarduerak neska mutilei laguntzen diete kirol berriak ezagutzen eta, ondorioz, aukera zabalagoa ere ematen zaie beren gustuko kirola zein den ikusteko eta praktikatzeko aukera izateko.
3. Eskolaz kanpoko kirol jardueren balioa indartzea. Jarduera osagarri hauetan neska eta mutilen parte hartzea sustatzea funtsezkoa da beren garapen integralera begira.

4. Familien parte hartzea bultzatzea eskola esparruko kirol jardueren planifikazio eta garapenean.
5. Kirol esparruan ere irakasle eta begiraleekiko errespetua babestea eta sustatzea. Ezinbestekoa da familien egiteko estrategikoa azpimarratzea eta errespetu hori etxean indartzea.
6. Eskola kirolari ematen zaizkion laguntzak areagotzea.
7. Eskola kiroleko fitxak kudeatzeko eta tramitatzeko sistema hobetzea.
8. Eskola kirolaren araudian aldaketak egitea, herrialdetik kanpo ospatzen diren txapelketetan parte hartzea errazteko eta kanpoko taldeek ere Bizkaian egiten diren txapelketetan parte hartzerik izan dezaten.
9. Eskola kirolean ere genero parekidetasuna bultzatzea. Kirol praktikan parte hartze orekatua bilatzea, eta gure neskek praktikatzen dituzten kirol diziplinen oinarria zabaltea, aukera gehiago izan ditzaten.
10. Entrenatzaileen prestakuntza hobetzea. Kirol modalitate berezietan pertsonal teknikoaren prestakuntza hobetzeko ikastaro bereziak diruz laguntzea.

KIROL INSTALAZIOEI BEGIRA

Bizkaia herrialdean kirola sustatzeko egiten den lana kirol azpiegitura eta instalazio sare garrantzitsuan oinarritzen da. Herrialde osoan azpiegitura guztien garapen orekatua bultzatzeak ezinbesteko du une honetan dauden instalazioak egokitzea eta hobetzea, eta inbertsio berriei aurre egiteko orduan eraginkortasun eta jasangarritasun ekonomikoaren logikatik eta dimentsionamendu zuzenenaren oinarripean egitea. Xede horrekin, **BizkaiaGO** ekimenaren bidez, hurrengo lerrootan zehazten diren ekarpenak aurkeztu dira:

1. Planifikazioak duen garrantzia azpimarratzea instalazio berriak egiterako orduan Instalazio berriak garatu behar ditugu, funtzionalak, eraginkorrak eta erabilera ezberdinetarako egokituak.
2. Orain dauden azpiegiturak behar berrietara egokitzea bultzatzea. Behar bezala erabiltzen ez diren instalazio horiek moldatu behar dira harik eta errendimendurik onena ateratzeko.
3. Kirol instalazioak eskualde mailan erabiltzea sustatzea.
4. Udalerrri txikietan kokatuta dauden zentroen kudeaketa bateratzea, eskualde bakoitzeko baliabideak kudeaketa unitate baten inguruan antolatuz.
5. Bazkide txartel bakarra bultzatzea, eskualdeko kirol instalazioak erabiltzeko aukera emateko.
6. Eskualde mailako kirol instalazioak batera mantentzeko eta kudeatzeko zerbitzuak kontratatzea sustatzea, eraginkortasuna irabazteko eta kosteak murrizteko.

7. Mankomunitate bidez emango diren zerbitzuen garapena bultzatzea, orain dauden kirol instalazioen moldatze eta mantentze jasagarria egiten dela bermatzeko.
8. Behar besteko azpiegiturak egitea, Bizkaian estalpeko belodromoa izateko.
9. Azpiegitura berriak garatzea negu aldean arraunketa entrenamenduak errazteko. Bilboko itsasadarrean instalazio berriak behar ditugu ekipo ezberdinek beren traine-ruak gordetzeko tokia eta aldagelak izan ditzaten.
10. Instalazioen zainketari buruzko kanpaina egitea. Gure instalazio guztiak zaintzea ar- dura handia da, eta erabiltzaile guztien konpromisoa behar da horretarako.
11. Plater-tiroketa praktikatzeko azpiegiturak garatzea. Bizkaian 20.000etik gora ehiza lizentzia daude eta ez dago entrenatzeko tokirik.
12. Udal kirol instalazioetan udal kirol taldeei lehentasuna ematea.
13. Diru laguntasunak kirolaren arabera ematea. Kontuan hartu beharrekoa da kirol ba- koitzean erabiltzen den material ezberdinaren kostea.

KIROL AUTOKTONOARI BEGIRA

Kirol autoktonoa bultzatzeko beharra azpimarratu da, kanpoko proiektiora begira eta euskal nortasun kulturala finkatzeko. Horretarako, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertso- nek honako proposamenak aurkeztu dituzte:

1. Herri kirolak sustatzea eta gaur egun egiten den inbertsioa handitzea. Sokatira mo- duko kirolak bultzatu behar ditugu, nazioarte mailan ezagunak izateko aukera ema- ten digutelako.
2. Gazteak herri kirolen esparrura hurbiltzea. Gure kirolaren balioa azpimarratu behar dugu eta Bizkaiko neska mutilei eskainiko diegun alternatiba gisa planteatu.

KIROL FEDERATUARI BEGIRA

BizkaiaGO ekimenean parte hartu duten pertsonen aho batez esan dute kirol federatua eta lehiaketa kirola eta esparru honetan parte hartzen duten eragile ezberdinak babestu behar direla. Horretarako, honako ekarpen hauek aurkeztu dira:

1. Goi mailako emakumeen kirola bultzatzea eta babestea.
2. Lehiaketa maila ezberdinak berrantolatzea eta orekatzea. Lehiaketa maila ezber- dinak ezartzea, aurreratuen dauden taldeen lehiakortasuna areagotzeko eta, aldi berean, horren lehiakorrak diren taldeen porrot sentimendua saihesteko, azkenean kirol jarduera bertan behera uztea ekartzen duelako.

3. Kluben iraunkortasun ekonomikoa bultzatzea. Egiten den proposamena da instalazioen mantentzea Administrazio Publikoaren ardurapean uztea, klubaren kosteak murrizteko eta tokian tokiko enplegua sortzeko.
4. Kluben egitekoa indartzea, gazteentzako aisi alternatiba gisa, jarduera berrien diseinuan eta garapenean parte hartzearen bidez.
5. Herrialde klubetako zuzendaritza taldeetan belaunaldi berriak sartzeari ahalbidetzea eta babestea.
6. Eskualde mailako teknikari baten laguntasuna izatea, klubei administrazioarekin egin behar dituzten gestio burokratikoetan laguntzeko eta gainerako eskualdeetako koordinazio lana egiteko.
7. Dopingaren kontrako lana. Erakundeen aldetik inplikazio handiagoa behar dugu kirol esparruan dagoen dopinga borrokatzeko, eta arlo honetan sentsibilizazioa areagotzeko.
8. Maila goreneko kirol lehiaketak eta ekitaldiak egitea eta babestea.

BIZKAIKO PERTSONA GAZTEEN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

GAZTERIARI BEGIRA

Pertsona gazteak dira Bizkaiko oraina. Bere garapen sozial eta ekonomikoaren protagonista dira eta, beraz, herri gisa dugun balorerik handienetakoa ere bai. Aurrera egin eta herrialde gisa garatu nahi badugu, era argi eta erabakigarrian egin beharko da gazteen aldeko apustu sendoa. Haiekin egon, babesa eman eta parte hartzaile izateko bideak eman. Haiekin batera eraiki nahi dugu Bizkaiaren etorkizuna. Helburu horrekin, **BizkaiaGO** ekimeneko parte hartzaileek honako proposamen hauek egin dituzte:

1. Gazteekiko harremanak eta komunikazioa areagotzea, beren komunikabideak erabiliz. Bizkaiko gazteekin komunikatzeko erabiltzen ditugun moldeak eta bideak egokitu behar ditugu. Beraiek komunikatzeko erabiltzen dituztenak erabili behar ditugu: whatsapp taldeak, gizarte sareak, eta abar.
2. Udalerrri mailan gazteekin harremanak sortzen lagunduko diguten jarduerak eta ekimenak garatzea. Horretarako, funtsezkoa da gazteek beraien eta gazteentzat pentsatutako jarduerak babestea.

3. Gazte bakoitzari bokazioa bilatzen eta aurkitzen laguntzea. Sustatze lana egin behar dugu gazteek motibatzen dituzten gauzak aurki ditzaten.
4. Esparru pribatutik gazteen jarduerak dinamizatzerara bideratutako ekimenak babestea.
5. Gazteentzat eginiko jarduerak planifikatzeko eta garatzeko orduan, gazteen parte hartzea bultzatzea eta laguntzea. Ezinbestekoa da "lonjak kalera ateratzea" eta gazteen parte hartzea sustatzea eta pizgarriak ematea.
6. Familiek eta ikastetxeek gazteei zuzendutako politiketan parte hartzea sustatzea, politika hauen koordinazioa, hedatzea eta eragina areagotzeko xedez.
7. Gazteguneen egitekoa bultzatzea, gazteen arteko lankidetzeta eta parte hartze esparru diren neurrian.
8. Gazteguneen ordutegia zabaltzea.
9. Gazteguneen aldetik bazterketa arriskuan egon daitezkeen gazteen kasuen antzemate goiztiarra bultzatzea.
10. Gazte etapa ezberdinetarako topaguneak eta jarduerak sustatzea.
11. Aisialdirako begiraleek egiten duten lanaren balioa azpimarratzea. Profesional hauek erreferenteak dira Bizkaiko gazteentzat.
12. Bizkaiko pertsona gazteen artean boluntarioratza bultzatzea. Pertsona boluntario berriak identifikatu eta prestatu behar dira eta une honetan egon daitezkeen ekimen soziokulturaletara bideratu behar dira, ekimen hauen jarraipena bermatzeko.
13. Pertsona gazteen artean solidarioratasuna sustatzea. Elkarrekin eta erakundeekin molde berriak bilatu behar dituzte gazteak ekimen solidarioetan inplikatzeko.
14. Pertsona gazteen inguruan dagoen ezagutza hobetzea. Gehiago jakin behar dugu Bizkaiko pertsona gazteen inguruan. Horretarako, beren beharrak, beren ardurak eta kezkek ezagutzeko eta herrialdea nola ikusten duten, beren lehentasunak zein diren eta abarrak jakiteko azterlanak egin beharko ditugu.
15. Ikusgarritasuna eman behar diegu arrakasta izan dezaketen ekimen eta egitasmoei. Helburua da funtzionatzen duten esperientziei balioa ematea, herrialdeko beste esparrutan errepikatuz edo moldatuz.
16. Elkarrekin kanpo egon daitezkeen gazteen parte hartzea sustatzea eta bultzatzea. Parte hartzea mugiaraztea, esperientzia pilotuak baliatuta.
17. **BizkaiaGO** moduko parte hartze ekimena bultzatzea, baina bereziki Bizkaiko pertsona gazteei zuzendua.
18. Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik gazteria alorrean burutzen dituen politikak ezagutzera ematea eta beren balioa azpimarratzea.

19. Alokairu soziala bultzatzea, pertsona gazteen emantzipazioa sustatzeko.
20. Gazteen lonjen kontrola hobetzea. Helburua da arriskuak gutxitzea eta gazteen aisialdirako erabiltzen diren lonjetan bizikidetzak hobetzea.
21. Gazteen aisialdirako pizgarri gisa, teknologia berrien bidez lonjen jarduerak sustatzea: aplikazio berriak garatzea, lehiaketak, argazkiak, sariak...
22. Bizkaiko Foru Aldundiak urritasunen bat duten pertsona gazteentzat ematen dituzten zerbitzuak sustatzea eta beren balioa azpimarratzea. Oraingo zerbitzuak indartu behar ditugu eta pertsona hauek gizarteratzeko esfortzua egin behar dugu.

INGURUMENAREN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

URAREN KUDEAKETARI BEGIRA

Hiriguneetan biztanleria kontzentratzeak eta eguraldiaren aldaketak dakartzan ondorioek esaten digute ura izango dela planeta osoan baliorik handienetakoa duen ondasuna, etxeko kontsumorako zein nekazaritza, industria eta zerbitzuetarako. Etorkizun honen aurrean, ezinbestekoa da Bizkaian uraren kudeaketa jasangarria eta iraunkorra bultzatzea, biztanleriaren esku egon dadin ongizate eta garapen ekonomiko eragile gisa. Esparru honetan, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonak hurrengo ekarpen hauek egin dituzte:

1. Kontsumo jasangarria sustatzea. Guztiz ezinbestekoa da hiritarrek kontzientzia hartzea. Ura amaitu ahal den baliabidea da eta zaindu beharra dugu.
2. Eskoletatik sentsibilizatzea. Baliabide naturalak behar bezala erabiltzea eta jasangarritasuna bilatzea helburu duten kanpainak bultzatu behar ditugu eskolan. Azaldu eta azpimarratu egin behar dugu gure ingurumenaren onerako ur kontsumoa murrizteak izan dezakeen garrantzia.
3. Bizkaia mailan uraren kudeaketa ikusaraztea eta dimentsionatzea. Hiritargoari azaldu behar diogu uraren kudeaketak duen kostea eta erabilera arduratsuak dakarren eragina.
4. Uraren zikloaren kudeaketa efizientea bultzatzea. Arlo honetan ezin dugu gabeziarik onartu.
5. Urtegieta eta banaketa sisteman ur galerarekin zerikusia duten arazoak hobetzea eta konpontzea. Naturatik ateratzen den uraren %30 banaketa sistemako hodieta galtzen da. Oso kopuru handia da.

6. Euri uren erabilpena bultzatzea. Euri ura beste hainbat gauzetarako erabiltzen lagunduko diguten dinamikak eta azpiegiturak garatu behar ditugu.
7. Bizkaiko udalerrri guztiak Bilbo Bizkaia Uren Partzuergora sartzea bultzatzea.
8. Uraren kudeaketa alorrean lan egiten duten eragile guztien lankidetzeta eta koordinazio akordioak bultzatzea eta eragitea.

HONDAKINEN KUDEAKETARI BEGIRA

Herrialde garapenerako funtsezko elementua da sortzen diren hondakinak kudeatzeko erabiltzen den prozedura. Hondakin kudeaketa eraginkorrek ezinbesteko du, alde batetik, Bizkaiko hiritar eta enpresen lankidetzeta, eta bestetik, Adm inistrazioaren konpromisoa prozesua errazteko eta funtzionamendu zuzena kontrolatzeko. Hauek dira **BizkaiaGO** prozesu parte hartzailean jaso diren ekarpenak:

1. Hiritarrei informazio zuzen eta zorrotza ematea hondakin kudeaketarekin zerikusia duten gaietan. Ezagutzera eman behar ditugu Bizkaian hondakin kudeaketa txarrak izango lituzkeen ondorioak.
2. Familiak birziklapenaren erronkan sartzea eta inplikatzeta. Denok gara prozesu honetan parte hartzaile eta erantzule.
3. Jarraipena eta kontrola bultzatzea, hondakin kudeaketa esparruan dauden arau guztiak betetzeko eta, beharrezko baldin bada, zuzentzeko behar diren neurri guztiak ezartzea.
4. Garbiguneetan ordutegi malguagoak eta zabalagoak sustatzea, hiritarrei erraztasunak emateko.
5. Garbiguneak enpresa txikien beharretara moldatzea.
6. Hiritarren parte hartze eta salaketa bideak sustatzea. Komunikabide berriak moldatzea ingurumenari kalte egin diezaioketen jarduerak edo egoerak salatzeko.
7. Hiritarren aldetik zabortegiek betetzen duten egitekoaren inguruan duten pertzepzioaren aldaketa sustatzea. "Zabortegi" terminoa ez da oso egokia, eta oso zentzu negatiboa dauka.
8. Bertan behera utzitako autoen arazoa konpontzea. Oraingo legeria zuzendu behar da kaleetan abandonatzen diren ibilgailuak kaleetatik ateratzea arautzeko.
9. Garbiguneetatik urrun dauden udalerrietan, garbiguneetara bidaliko den materiala batzeko prozesua zentralizatzea proposatzen da.
10. Zaborraren gaineko udal tasa ezberdinak ezartzea, ingurumenari egiten zaion eraginaren arabera. Bidezkoena litzateke gehien kutsatzen duen pertsona edo erakundeak, gehiago ordaintzea.

11. Nekazal esparruan auto-konpostatze lana sustatzea. Dibulgazio hitzaldiak, prestakuntza berezia eta konpost egiteko ekipamendua doan banatzea.
12. Etxeko hondakin organikoak bereizita batzeko edukinontziaren aldeko apustua sustatzea (bosgarren edukinontzia).

KUTSADURA AKUSTIKOA ETA SOINUAREN KALITATEARI BEGIRA

Kutsadura akustikoa edo soinuaren kutsadura da gune zehatz batean inguruaren baldintza normalak aldarazten duen soinu neurrigabea. Beste kutsadura moten kasuan ez bezala metatzen, garraiatzen edo denboran mantentzen ez den arren, ondo kontrolatzen ez bada kalteak eragin ditzake bizitzen bizitza kalitatean. Gai honi dagokionez, honako ekarpen hauek egin dira:

1. Kutsadura akustiko txikiagoa produzitzen duten garraiobide elektrikoak sustatzea eta arlo honetan pizgarriak ematea.
2. Txirringen alokairua bultzatzea, kutsadura akustikoa murrizten laguntzeko.
3. Merkantzien garraiorako autobideak erabiltzeko pizgarriak eta deskontuak, errepi-deetan halako ibilgailuen trafikoa murrizteko.
4. Disuasio-parking sarearen ezarpena eta garraio publikoaren erabilpena bultzatzea, Bizkaiko hiri eta herrietan ibilgailu pribatuen erabilerari lotutako eragina murrizteko helburuarekin.
5. Zarata mapak eta simulagailuak garatzea bultzatzea, erabakiak hartzeko prozesuak hobetzen lagunduko digun informazioa jasotzeko.
6. Etxebizitzak eta merkataritza lokalak moldatzeko lanak babestea, kutsadura akustikoak izan dezakeen eragina gutxitzeko.

AURREZPENARI ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOARI BEGIRA

Bizkaiko norbanakoek eta erakundeek energiaren kontsumo energetiko arduratsua egite-
ra bideratu behar dira, kosteak murrizteko eta herrialdearen jasangarritasun ekonomikoa
eta ingurumen alorrekoa sustatzea helburu. Bizkaiko hiritarren eta enpresa sarearen
argindarra aurrezteko kontzientzia kolektiboa sortaraztea funtsezkoa da eredu ener-
getiko jasangarria garatzeko. Honako hauek dira helburu hori lortzeko egin diren propo-
samenak:

1. Aurrezpen, efizientzia energetiko eta energia berriztagarrien esparruan toki ad-
ministrazioentzat eta bizilagunen erkidegoentzat eta etxebizitza kooperatibentzat
egon daitezkeen laguntasunak bultzatzea.

2. Arkitektura berdea eta eraikuntza jasangarri eredu berriak bultzatzea eta babestea.
3. Erkidegoetan eta talde instalazioetan pellet eta ezpalak (biomasa) erabiltzeko efizientzia-proiektu berriak sustatzea.
4. Hiritargoa energiaren kontsumo jasangarri esparruan hezte eta kontzientziatzea.

ONDARE NATURALARI ETA EKOSISTEMEN ZERBITZUEI BEGIRA

Garapen jasangarriak esan nahi du, ekosistemen mugen barruan, denontzako bizitza kalitate hobea ekarriko duen aurrerapena bermatzea. Bizkaia herrialdearen garapen orekatu eta jasangarria lortu behar da, kohesio ekonomiko eta soziala, baliabide naturalen zainketa eta herrialdeko eskualde ezberdinen arteko oreka lehiakorra babestea lortuz. Horretarako, honako proposamen hauek jaso dira:

1. Hiritarren artean Bizkaiko ondare naturalaren zainketari lotutako baloreak sustatzea eta piztea.
2. Eskualde bakoitzeko ingurumena eta paisaia ezagutzea bultzatzea. Ezin izango dugu ezagutzen ez duguna zaindu.
3. Lehen sektoreak ingurumenaren orekarako duen egitekoa aitortzea. Abeltzaintza gure mendietan behar bezala kudeatzeak bermatzen du sektore hori mantentzea.
4. Azpiegitura berrien garapen orekatua bultzatzea, ematen dituzten onurak eta ingurumenean duten eragin erreala baloratuz.
5. Errenten bidez eta basoko biomasa energia iturri erabilita, paisaia zaintzeko laguntasunak bultzatzea.

HIRITARREN PARTE HARTZEAREN, GARDENTASUNAREN ETA E-ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

HIRITARGOAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOARI BEGIRA

Hiritarrekiko harremanak barnean hartzen ditu Bizkaiko hiritarrekiko elkarreragina sustatzera eta hobetzera begira burutzen diren jarduera guztiak. Hurbiltasun handiagoa bultzatu behar dugu Bizkaiko elkarte ezberdinekin, administrazioarekiko harremanak erraztuz, komunikazio

bide berriak irekiz eta prozedura administratiboak sinplifikatuz. Arlo honetan, honako hauek dira **BizkaiaGO** prozesuan parte hartu duten pertsonen eginiko ekarpenak:

1. Administrazioaren eta hiritargoaren arteko harremana moldatzea, Bizkaiko herritarrek esparru publikoarekiko antzeman duten urruntasuna murrizteko.
2. Udal mailako ordezkari publikoen eta herritarren arteko hurbiltasuna sustatzea. Udallerri mailan ordezkari eta herritarren arteko harremana hurbilagoa izan behar da herritarren parte hartzea ere areagotzeko.
3. Herrialdearen eraikuntza prozesuan herritarren parte hartzea sustatzeko komunikazio kanpainak sustatzea. Herritar guztien parte hartzea behar dugu Bizkaiaren eraikuntza prozesuan.
4. Ohiko komunikabideak sustatzen segitzea. Komunikazio bide berriek ezin dituzte ohiko komunikabideak erabat ordezkatu. Pertsona askok baloratzen dute arreta pertsonalak eskaintzen duen hurbiltasuna.
5. Whatsapp delakoaren erabilera bultzatzea, hiritarrekin komunikatzeko tresna gisa.
6. Eskolatik, denon ongia lortzeko egiten den lanaren baloreak, solidariotasuna eta zerbitzu publikoa izateko bokazioa sustatzea. Balore horiek ezinbestekoak dira etorkizuneko hiritarrak hezteko.
7. Erakunde publikoetan hiritarrei arreta zuzena emateko departamentuetan eta lan esparruetan lan egiten duten pertsonen gaitasunak eta trebetasunak sustatu behar dira. Herritarrekiko hurbiltasuna eta sintonia ezinbesteko elementu dira aspaldiko partez galdu den konfiantza esparrua berreskuratzeko.
8. Lengoia publiko ezberdinetara moldatzea. Ezinbesteko dugu Administrazioaren aldetik jakinarazpenak edo komunikazioak egiteko erabiltzen diren moldeak eta hizkera komunikazio horiek jasoko dituen gizarte taldearen arabera egokitzea.

GARDENTASUNARI ETA INFORMAZIOA JASO AHAL IZATEARI BEGIRA

Gure herrialdearen eraikuntza demokratikoak ezinbestean suposatzen du Bizkaiko herritarrek informazio publikoa erraz eta askatasunez eskuratu ahal izatea. Gardentasuna hobetzeak hobetu egiten ditu Administrazioak hiritarrekin dituen harremanak, bere erabakiak hobeto ulertuko direlako eta babes eta legitimitate handiagoa izango dutelako. Esparru honetarako, honako ekarpen hauek jaso dira:

1. Administrazioaren web guneak hobetzea. Hiritargoak informazioa eskuratu eta ulertu behar du. Lehenetsi beharrekoa da web guneak moldatzea eta ulergarri egitea.
2. Hiritarrei helarazten zaien informazioa ulergarri egitea. Administrazioak ahalegina egin behar du hiritarrei informazioa argi eta era didaktikoan aurkezten.

3. Datu konplexuak aurkeztu behar direnean, datu horiek grafikoki adierazteak izan dezakeen potentziala aztertu (infografiak, grafikook, taula dinamikoak, eta abar,...) ulermena erraztea helburu.
4. Informazio eskarien aurrean erantzunak emateko denborak murriztea. Informazioa emateko prozesuak arindu beharra dago.
5. Gardentasuna eta Datuen Babeserako Lege Organikoarekin uztartzea. Ezinbestekoa da lege honi begiratzea eta informazioa emateko prozesuetan planteatzen dituen mugak kontuan hartzea.
6. Eskari guztiei erantzutea. Administrazioak informazio eskari guztiei entzun behar die. Egingarri, bideragarri edo legala izango ez balitz, eskariari erantzun beharko zaio, ezintasun hori arrazoituz.
7. Erakunde publiko ezberdinetan agintaldi planen ebaluazioen, jarduera memorien eta abarren garapena sustatzea. Hiritarrek planifikatutakoaren betepen maila eza-gutu nahi dute eta egin ez zena zergatik egin ez den.
8. Herri administrazioan ate irekien egunak bultzatzea, hiritargoari gure barne funtzio-namendua eta esparru publikoko lan dinamikak erakusteko helburuarekin.
9. Laguntasunak emateko prozesuetan gardentasuna bultzatzea. Ezinbesteko jotzen da gardentasuna areagotzea, diru publikoak emateko, kudeatzeko eta erabiltzeko orduan.
10. Herri kontuen Epaitegiak egiten duen kontrol eraginkorra eta ez interesatua sustatzea.
11. Bizkaiko herri karguen jokaera etikoaren etengabeko ebaluazio sistemak sustatzea. Ezinbesteko dugu "Basque Score Card" izeneko egitasmo pilotua martxan jartzea, gobernu ona deritzonetik desbideratutako jokaerak prebenitzeko eta Bizkaiko hautetsien garbitasun eta politikoa indartzeko.
12. Sektore publikoko datuen irekiera bultzatzea, Open Datak dituen helburuak eta erronkak argi izanik. Ezinbesteko dugu datu publikoak jasotzea sustatzea eta erraztea, era egokian erabiliak izan daitezten eta, batez ere, izan dezaketen balore ekonomiko eta soziala jasotzea erraztuz.
13. Herritarrei behar besteko gaitasun eta trebetasunak jasotzen laguntzea, Open Dataren onurak baliatzeko aukera izan dezaten. Open Data delakoa elementu garrantzitsua da iritzi propioa izateko eta eztabaida publikoan parte hartu ahal izateko, erabakiak hartzeko prozesuan eragiteko gutxieneko aukerak izanez. Horretarako, esfortzua eta ezagutza behar dira.

KUDEAKETAREN EFIZIENTZIARI BEGIRA

Aurrekontuei mugak jarri behar diren eta, oro har, klase politikoarekin desenkantua nagusi den egoera honetan, baliabide publikoen kudeaketaren efizientzia da zutaberik nagusienezkoa, hiritarrek beren ordezkarienganako konfiantza berreskuratzea helburu. Aldi berean, ezinbestekoa da kudeaketaren kalitatea eta bikaintasuna gorenera eramatea, erabilgarri ditugun baliabideak eskura, harik eta errendimendurik handiena lortzeko. Honakoak dira esparru honetarako jaso diren ekarpenak:

1. Egitasmo eta proiektu arrakastatsuei jarraipena eta egonkortasuna ematea. Kalitatezko zerbitzu publikoa emateko helburua lehenetsi beharreko litzatekeen zerbitzuak, alderdi politiko bakoitzaren ideologiaren gaineratik.
2. Sistema publikoaren eraginkortasuna areagotzea ikuspuntu hirukoitza abiapuntu hartuta: efizientzia ekonomikoa, egitasmo edo proiektuetan inplikaturako pertsonen asebetetzea eta kalitate oneneko lana eskaintzea.
3. Administrazioaren gastua eta sarrerak orekatuko duten eredu ezberdinak aztertzea.
4. Administrazioan lan taldeen antolaketan eta erabakiak hartzeko prozesuetan behar den oreka bilatzea. Antolaketa horizontalak alderdi positiboak dituelako ustea dago. Dena dela, nolabaiteko bertikaltasuna ere behar da, lantaldearen hierarkia bat, erabiltzaileak "funtzionario batengandik bestearengana" joan behar duelako sentsazioa izan ez dezan, laguntasuna eskatzeko arduradunik ez dagoelako.
5. Berrikuntza bultzatzea Administrazioaren prozesu eta zerbitzuetan. Irten behar dugu eta beste herrialdeek nola egiten duten ikusi behar dugu, errepikatuz izan daitezkeen esperientziak jasotzeko.

HIRITARREN PARTE HARTZERA BEGIRA

Adostasun bat dago hiritarregandik hurbilago egongo den administrazioa bultzatzeko beharrraren inguruan. Administrazio bat eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta arduraren printzipioekin jardungo duena. Printzipio hauek gauzatzeko bidean, ezinbestekoa da gai publikoetan parte hartzaileagoa izango den Bizkaia lortzeko bidean aurrera egitea, konpromiso kolektiboa bultzatuz, betiere. Horretarako, honako proposamen hauek jaso dira:

1. Parte hartzeak izan dezakeen garrantziaz sentsibilizatzea eta hezteak, ariketa demokratikoa den neurrian. Parte hartze kultura sortu behar dugu. Hiritargoari erakutsi behar diogu beren parte hartzea zein garrantzitsua izan daitekeen Bizkaiaren garapenera begira.
2. Hiritarren parte hartzea sustatzea programak eta planak zehazteko hasierako etapatik. Hiritarren parte hartzeak baloreak eman ditzake egitasmoen fase ezberdinetan, eta ez bakarrik azken balorazioan.

3. Parte hartzea sustatzea, baina inola ere ez derrigortzea. Parte hartzea eskubidea da, eta ez derrigorra. Nahi ez duen pertsonak ez luke parte hartzera derrigortuta sentitu behar.
4. Hiritarren parte hartzea kontratazio publikoetako prozesuetan erabiltzeko aukerak ebaluatzea eta aztertzea.
5. Aholku batzordearen figura baloratzea. Esparru ezberdinetan adituak diren pertsonak osatuko lukete hiritarren parte hartze prozesuetan laguntzeko tresna gisa.
6. Hiritarren parte hartzea udal gobernuak abian jarriko dituen jarduerak lehenesteko prozesuetan. Horretarako proposatzen da kontsulta egitea eta neurrizko boto bidezko sistemak erabiltzea.
7. Elkartearen egitekoaren balioa. Bizkaiko elkartearen parte hartzea erakundearen egitasmo eta planen definizio, garapen eta ebaluazioan.
8. Hiritarren parte hartze prozesuak bultzatzea, hiritargoak balorea eman dezakeen proiektu eta jardueretan. Bestela, parte hartzea kudeaketaren eraginkortasuna eragotziko lukeen elementua izan liteke. Hiritarren parte hartze publikoak bakarririk erabili beharko liriateke benetan behar diren kasuetan.
9. Gobernu irekiaren printzipioak eguneroko kudeaketa lanean ezartzeko behar diren irizpideak argitasun eta zehaztasun osoz ezartzeko protokoloak erabiltzea.
10. Hiritarren parte hartze eredu ezberdinak aztertzea, egitasmo bakoitzerako eredu egokia identifikatzeko edo ezartzeko.
11. Parte hartze prozesuak behar bezala zehaztea eta konfiguratzeko. Behar bezala zehaztu behar dira prozesuaren helburua eta helburuak eta bere irismena eta mugak, arlo juridikoan zein eskuragarri dauden baliabideen aldetik. Aldi berean, ezinbestekoa da parte hartze prozesuaren markoa zehaztea, hiritarren aurreikuspenak behar bezala kudeatzeko eta prozesu horietan frustraziorik edo mesfidantzarik ez sortarazteko.
12. Parte hartzearen eta lidergoaren arteko oreka aurkitzea. Azken erabakia da ordezkaritza erakundeena, hau da, "izenpea jartzen duenarena".
13. Hiritarren parte hartzea pizteko estrategia berriak baloratu behar dira. Parte hartze eredu berriak arakatzeko. Parte hartzea gamifikazioaren bidez, parte hartze jostagarria, pizgarriak parte hartzearen truke.
14. Internet eta gizarte sareak dira hiritarren parte hartze bideak eta eskariak eta kezak aurkezteko tresnak, eta horrela ikusi behar dira. Entzute aktiboa praktikatzeko parte hartzea bera sustatzea bezain garrantzitsua da.
15. Parte hartzeak kultur aldaketa arloan suposatzen duen aldaketa lantzea. Udal teknikariak esparru honetan trebatu behar dira.

16. Parte hartze prozesuetan aholkularitza tekniko profesionala izatea. Parte hartze prozesuen kalitatea bermatzeko, erakundeek aholkularitza profesional egokia jaso behar dute.
17. Bizkaiko Parte Hartzearen Liburu Zuria egitea, Herralde osoko eskualdeetan eta udalerrietan ezarri ahalko diren zuzentarau zehatz batzuk zehazte aldera.
18. Prozesu parte hartzaileen bankua garatzea. Helburua da parte hartze prozesuen eredu erreal batzuk izatea, Bizkaian ezarri ahalko diren praktika onak jasotzeko.

TEKNOLOGIA BERRIEN EGITEKOARI BEGIRA

Ageri-agerikoa da teknologia berriek Administrazioa modernizatzeko prozesuetan duten garrantzia. Beren erabilera optimizatzeko gai izan behar dugu eta errendimendurik handiena atera behar diegu, zerbitzu publikoen efizientzia eta kalitatea hobetzeko, eta hiritarrekiko komunikazioa eta hurbiltasuna hobetzeko. Zentzu honetan, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonak honako proposamen hauek egin dituzte:

1. Teknologia berrien bidez komunikazio berrien garapena bultzatzea. Hiritargoak bide berriak eskatzen ditu eta behar ditu beren kezkak adierazteko eta komunikatzeko, eta teknologia berriek aukera onak ematen dituzte Bizkaiko herritarrak erabakiak hartzeko prozesuetan inplikatzeko.
2. Arrakala digitala borrokatzea. Jarduera berriak bultzatu behar ditugu hiritarrek IKT-en esparruan trebatzeko, bazterketa digital egoeran egon daitezkeen taldeen trebakuntza lehenetsiz.
3. Teknologia berrienganako konfiantza bultzatzea eta e-Administrazioaren abantailak sustatzea.
4. Gizarte talde bakoitzarentzat egokien izan daitekeen komunikazio bidea erabiltzea. Ezinbesteko dugu Administrazioak tresna ezberdinak ezagutzea eta gizarte talde bakoitzarekin komunikatzeko orduan egokiena izan daitekeen tresna zein den zehazteko gai izatea.
5. Herralde osoko udal administrazioen tresnak homogeneizatzea.
6. Erakundeen web orrialdeak hobetzea. Ezinbestekoa da erabilerraztasuna, diseinua eta funtzionalitatea hobetzea eta administrazioaren orrialdeak erabiltzen errazago eta sinpleago egitea.
7. Pertsona gazteen artean e-administrazioaren erabilpena sustatzea. Eskolen eta Aldundiaren arteko lankidetzak jarduerak garatzea, gizarte talde honetan erakundeen web guneen erabilpena bultzatzeko.
8. Teknologia berrietan inbertitzea bultzatzea. Kudeaketa publikoa erraztu eta sustatzen lagunduko duten kudeatze tresna berrien ezarpena babestea.

9. Aldundiko adituen aholkularitza jasotzea. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko udaletan zerbitzu teknologikoak erosteko eta kontratatzeko prozesuetan laguntzeko izan dezakeen egitekoa bultzatzea.
10. Ebaluazio prozesuetan eta administrazio plan eta egitasmoetan teknologia berrien erabilera optimizatzea eta bultzatzea. Teknologia berrien abantailak baliatu behar ditugu kontrol eta kontu emate prozesuak gardenago egiteko.
11. Estrategia berriak arakatzea eta aztertzea, hiritarrek e-administrazioa erabiltzea laguntzeko. Alternatiba bat izan daiteke hiritar talde batzuk e-administrazioa erabiltzea derrigortzea, enpresekin egiten den moduan.
12. Administrazio ezberdinen kudeaketa sistemen ateko elkarreragina bultzatzea, paper-tramiteak murrizteko eta tramite prozesuak arintzeko.
13. Dauden datuak (Big Data) ustiatzea sustatzea, erabakiak hartzeko prozesuak ahalbidetzen eta errazten lagunduko duen informazioa eskuratzeko helburuarekin.

GIZARTE POLITIKEN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

GIZARTE KOHESIOARI DAGOKIONEZ

Bizkaiko gizarte kohesioak egoerarik ahulenean aurkitzen diren gizarte taldeen integrazioa ahalbidetzeko politika publikoak garatzea exijitzen du, hau da, integrazioa gizartean, kulturean eta lan esparruan. Gizarte inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikitzen lagunduko duten jarduerak bultzatu behar ditugu. **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonen honako proposamenak egin dituzte arlo honetarako:

1. Pertsona gizarte politikoen helburu gisa kokatzea. Zerbitzuak eta jarduerak gizarte esparruan zehaztea eta egituratzea, pertsonen ikuspegi integrala abiapuntu hartuta.
2. Politikak tokian tokiko esparruetatik bultzatzea. Hiritarren beharrei erantzuna emateko orduan lan horri era zuzen eta hurbilean ekin behar diogu.
3. Zerbitzu eta jarduera bereziak garatzea, gure udalerrietan bizi diren gizarte taldeei arreta emanez.
4. Esparru sozio-sanitarioaren definizio eta egituratze egokiari ekitea. Eragile bakoitzaren eskuduntzak eta zerbitzuak ezarri eta zehaztu behar ditugu.
5. Gizarte esparruko eta osasun sistemako eragile ezberdinen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea.
6. Gizarteratze eta gizarte kohesio kontzeptuak kontuan hartzea, hiri adimendunak eraikitzeko funtsezko elementu diren neurrian. Ez dago smart city delakorik, gizarte politika adimendunik egon ezean.

7. Gizarte laguntasunen esparruan iruzurra kontrolatzeko ekimenak bultzatzea. Laguntasunen jarraipen eta kontrolaren eraginkortasuna indartu behar dugu, laguntasun hauek behar dituztenengana hel daitezten.
8. RGI delakoak betetzen duen funtzio soziala defendatzea. Eskubide bat da eta defendatu beharra dago hiritargoari ematen dion babes maila gogoan izanik. Desberdintasunak murrizten laguntzen du eta kohesio faktore garrantzitsua da.
9. RGI laguntasunen kudeaketa bere benetako dimentsioan ezagutzera ematea. Datu errealekin eta datu estatistikoekin bidez informatu behar dugu gure gizartearentzat horren garrantzitsua den tresnaren eraginaz.
10. RGI laguntasunen gestioa foru aldundien eta oinarritzko gizarte zerbitzuen ardurapean Lanbideren ardurapean jarri delarik, hainbat arazo sortu dira eta huts egite asko eman dira tramitazioan. Premiazkoa da trantsizio fase hau gainditzea eta prozedura egokiak ezartzea, egoerarik ahulenean dauden hiritarrek ez ditzaten sufritu behar administrazio prozeduretan gertatzen diren huts egiteak.
11. Gizarte laguntasunak norbanakoa gizarteratzeko zerbitzuekin osatzea. Diru prezazioekin batera gizarteratze prozesuak aktibatuko beharko liriateke, pertsona guztiei gizartean parte hartzeko aukerak bermatzeko.
12. Administrazio ezberdinen arteko kudeaketa sistemen interoperatibotasuna bultzatzea, esku hartzeak arintzeko eta esku hartze bakoitzaren eraginkortasuna indartzeko.
13. Haurtzarotik solidariotasuna sustatzea, gizarte eraikuntzarako ezinbesteko balore den neurrian. Gizarte hezitzailearen garrantzia aldarrikatzea.

URRITASUNA DUTEN PERTSONEI BEGIRA

Urritasunari buruzko paradigma berriaren baitan pertsonaren osasun egoera ez da kontuan hartzen den elementu bakarra, urritasuna ulertzeko orduan kontuan hartu beharreko elementua baita urritasun hori berori testuinguruko elementuekiko duen interakzioa: inguruan egon daitezkeen eragozpen eta oztopoak eta gizartean parte hartzeko orduan aurkitzen dituzten mugak. Ikuspegi berri honek eskatzen du Administrazioaren aldetik behar beste egokitzapenak bultzatzea urritasunen bat duten pertsonak integratzeko, urritasuna duten pertsonen beste gizakiekin baldintza beretan egotea eragozten dieten oztopoak ezabatuz eta murrizketak saihestuz. Esparru honetan, honako proposamen hauek planteatu dira:

1. Urritasunari begiratzea, jardun politikoan lehenetsi beharreko arretarako zehar-esparru gisa, eta zentzu horretan ulertu behar da. Horrek suposatuko luke gutxieneko arauen protokoloa egitea udal esparruan derrigorrez aplikatu beharko dena, eta urritasunaren benetako zehar-lerroa bermatzeko.

2. Aldiro-aldiri eta era sistematikoan, Bizkaiko herritar guztiei zuzendutako sentiberatze kanpainak eta hiritargoa hezteko kanpainak abian jartzea, urritasuna duten pertsonen erreditatearen inguruan.
3. Errehabilitazio zentro eta zerbitzu berrien garapena babestea. Errehabilitatzeko arreta beste toki batzuetan ere eskaini liteke, herrialde osoan erreferentzia zentroak sortuz eta adineko pertsoneri eta urritasuna duten pertsoneri errehabilitazio zerbitzu handiagoa eskaini ahal izateko.
4. Urritasuna duten pertsoneri sarbideak erraztea eta hobetzea. Iresgarritasun onak urritasuna duten pertsonak sufritzen duten mendekotasun egoera murriztu edo saihestu ahal du. Ezberdintasun nabarmenak daude, bereziki hiriguneen eta nekazal guneen artean.
5. Urritasuna duten pertsonentzako aparkaleku plaza gehiago eskaintzea.
6. Egokitutako garraio publiko gehiago eskaintzea. Egokituta dauden unitate kopurua handitu behar da urritasuna duten pertsonen mugikortasuna errazteko.
7. Igogailuak motordun aulki berrien tamainetara egokitzea. Igogailuen kode teknikoa egokitu behar da sarbideak gutxienez 1,5 metrokoak izan daitezen.
8. Adimen urritasuna duten pertsonentzako arreta integrala bultzatzea. Beharriak daude arlo sozialean zein beste hainbat esparrutan. Gizarte talde honi lagundu behar zaio enpleguan, prestakuntzan, etxebizitzetan egin behar diren moldatze lanei dagokionez, eta abar.
9. Gizarte talde ezberdinek lengoaiaren esparruan izan ditzaketen beharrak asetzea. Administrazioak zerbait komunikatu behar duen guztietan hizkuntza argia eta dezentzat ulergarria erabiltzea bultzatzea.
10. Urritasuna duten pertsonak Erkidego mailako politiketan integratzeko Plana abian jartzea, udal korporazioak edo Foru Aldundiak urritasun arloan burutzen duten politika bideratzeko.
11. Udal gobernu bakoitzaren baitan urritasuna duten pertsonen berdintasuna, normalizazioa, inklusio eta parte hartze politiketara dedikatutako saila edo erakundea eratztea.
12. Udal esparruan urritasuna duten pertsonen parte hartzea eta ordezkariak bultzatzea. Urritasuna duten pertsonen erakundeen ordezkariak eta familiak udalerrir ezberdinetan izango diren parte hartze erakundeetan sartzea bultzatzea.
13. Lan legeriaren pean dauden udal eta foru enpresetan enplegu-kuota erreserbatzeko araua ezartzea edo neurri alternatiboak betetzen direla bermatzea.
14. Gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen inklusio sozio-laborala kontratazio publikoaren bidez babestea. Arau bidez eta jarduera bidez neurri berritzaileak erabiltzea eta abian jartzea, urritasuna duten pertsonen lan munduratzeko bermatzeko.

15. Urritasuna duten pertsonen lan munduratzeari sustatzea. Administrazioaren kontratuaren baldintza plegetan enkantean parte hartzen duten enpresen artean, urritasuna duten pertsonak kontratatzearen aurreikuspena egiten duten enpresak lehenesteko klausulak aurreikustea.

PERTSONA NAGUSIEI ETA MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI BEGIRA

Zahartzearen erronkak berarekin dakar nagusiei ematen zaizkien zerbitzuetan aldaketak egiteko beharra. Ezinbestekoa da zerbitzu kartera berrien aldeko apustua egiten segitzea, eredu komunitarioagoak egiten lagunduko dutenak, pertsona helburu, bere duintasuna eta bere eskubideak zainduko dituztenak eta ekonomikoki jasangarriak izango direnak. Eraiki beharko dugun gizartean pertsona nagusiak bere garapenaren parte aktiboa izango dira eta egituratu beharko den karterak zahartze eta mendekotasun egoerak babestu beharko ditu, pertsonaren beraren duintasuna lehenetsiz. **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonak hurrengo proposamen hauek aurkeztu dituzte:

1. Adineko pertsonen parte hartzea bultzatzea talde honi zuzendutako politika eta planak zehazteko eta definitzeko orduan. Jakin behar dugu gure nagusiek zer eskatzen duten, zer behar duten eta zer baloratzen duten.
2. Adineko pertsonen egitekoa aldarrikatzea udalerrien eguneroko bizitzan. Zehar politiketan lan egin behar dugu gizarte talde honek gure gizartean egiteko aktiboa goa izan dezan.
3. Egoitzetan bizi diren adineko pertsonen gizarteratzerako bideratutako jarduerak bultzatzea. Egoitzetan bizi diren pertsonak harreman sozialak izatea bultzatu behar dugu.
4. Zerbitzuen deszentralizazioa. Zerbitzuak erabiltzaileei hurbildu behar zaizkie.
5. Egoitzen funtzioa eta egitekoa desmitifikatzea eta daukaten balioa aitortzea. Egoitzetan pertsona nagusiei ematen zaizkien zainketak eman behar dira ezagutzera, ez dira adineko pertsonak abandonatzeko lekuak, eta ez dira horrela ulertu behar.
6. Bizkaiko egoitzei begira bideragarritasun plana garatzea, beren jasangarritasuna bermatzeko estrategia aztertzea eta zehaztea begira.
7. Egoitza zerbitzua handitzeko aukerak aztertzea. Egoera zailean egon daitezkeen pertsonak sartzeari ebaluatzea, hau da, sendatze bidean dauden drogazaleak, isuripuen ondoren sendatze bidean dauden pertsonak, bakarrik dauden pertsonak, eta abar.
8. Nekazal guneetako anbulatorioak edo egoitzak adineko pertsonen arreta berezitu emateko gune gisa erabiltzeko aukerak aztertzea.

9. Teknologia berriak baliatzea. Teknologia berrien erabilera hobetu behar dugu eta irtenbide berriak garatu behar ditugu adineko pertsoneri ematen zaien arreta sozio-sanitarioaren kalitatea hobetzeko.
10. Hiriguneetan adineko pertsonen sufritzen duten isolamenduaren arazoari aurre egitea. Arazo hori konpontzeko orduan teleasistentzia bezalako baliabide teknikoak sustatu behar dira, eta horrekin batera egoera horiek ezagutzeko eta ebaluatzeko protokoloak zehaztu behar dira, babes informala emateko sareak sortu, eta abar.
11. Zerbitzuak eskuragarri jartzea. Adineko pertsona askok mugikortasun arazoak dituzte. Egoera honi erantzen bazaizkio geografikoki urrun egon daitezkeela edo baliabideak urriak direla, ondorio modura, pertsona nagusi asko ez direla zerbitzuak baliabideak eta jarduerak eskaintzen diren tokietara joaten. Udal batzuetan diruz lagundutako taxiaren esperientzia batzuk egin dira eta emaitza onak dituzte eta herritarrek oso ondo baloratzen dituzte.
12. Topagune berriak babestea eta sustatzea, gizarte talde honek bere jardura sozialak garatzeko tokia izan dezan.
13. Zahartze aktiboa ekintzailatza esparru izan daitekeen aldetik. Zahartzearen fenomenoaren plataforma egokia izan daiteke enplegua eta zaintza zerbitzuak sortzeko, belaunaldien arteko integrazioa eta gizartearen suspertzea ahalbidetzeaz gain.
14. Adineko pertsonen zainketa ere izan daiteke lanik gabe dauden pertsonen lan aukera. Prestakuntza dinamikak eta lan moldeak garatu beharko lirateke pertsoneri zuzendutako eta herrialdeari lotuak.
15. Emakumearen egitekoari arreta ematea. Familia da, eta batez ere emakumea, tradizioaren arabera, zainketa ardurak bereganatzen dituena, arlo fisikoan zein esparru emozionalari dagokionez. Egiteko horren balioa azpimarratu behar dugu, lana aitortu eta lana eta bizitza pertsonala uztartzea ahalbidetu, bere garapen pertsonala eta soziala helburu.
16. Etxe barruan pertsona erabiltzaileek errazago jaso ahalko duten eredu profesionala ezartzea erraztea. Zerga arau egokiaren bidez kostea murrizteko aukerak aztertzea.
17. Pertsona zaintzaileei zuzendutako Programa (Zainduz) indartzea eta Bizkaiko udal-erri ezberdinetara hurbiltzea.
18. Sektore sozio-sanitarioko profesionalen parte hartzea bultzatzea gizarte ekintza zehazteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan. Pertsona erabiltzaileengandik hurbilen dauden pertsonen ikuspuntuak kontuan hartu behar dira.

DROGA-MENDEKOTASUNARI ETA GIZARTE BAZTERKETARI BEGIRA

Ez da justizia sozialik izango, hurbilen ditugunak eta ahulenak kontuan hartu ezik. Egoerarik ahulenean aurkitzen diren pertsonen erakundeen babesa eta laguntasuna behar dute. Esparru honi dagokionez, **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonen honako ekarpen hauek egin dituzte:

1. Bizkaiko gazteentzat, alkoholaren eta beste drogen kontsumoak ekar ditzakeen kalteak azaltzeko kanpainak egitea.
2. Gizarte bazterketa arriskuan egon daitezkeen gizarte taldeen gizarteratzea eta lan munduratzeari sustatzea. Bizkaiko herri erakundeetan gizarteratze eta lan munduratzeari egitasmoak garatzea sustatu eta ahalbidetu behar dugu.
3. Zerbitzuak hiritarrei hurbiltzea. Eskuragarri dauden zerbitzu eta laguntasunen balioa azpimarratzea eta gizarte bazterketa arriskuan egon daitezkeen pertsonen eskura jartzea.
4. Desjabetzearen tragedia sufritzen duten familiak babestea. Desjabetzeak premia osoz saihestu eta desagerrarazi behar dira. Inola ere ez da onartu behar pertsona bat etxerik gabe eta kalean uztea.

INMIGRAZIOARI ETA ANIZTASUNARI BEGIRA

Bizkaiak behar dituen gizarte politikak bilatu behar dute giza eskubide guztien defentsa, giza-banako guztien duintasuna, justizia sozialaren eta solidariotasunaren sustapena eta gizarte inklusiboaren eraikuntza, zeinetan pertsona guztiek, jatorria edo egoera dena delakoa izanik, bizimodu arrunt, on eta duina garatzeko aukera izango duten. Jarraian, hona hemen esparru honetan jaso diren ekarpen nagusiak:

1. Pertsona etorkinei gaztelania eta euskara ikasten laguntzea. Gure herrialdeko hizkuntza ofizialen ezagutza ezinbestekoa da pertsona etorkinen integrazio sozio-kulturala eraikitzeko orduan.
2. Arestian aipatu diren gizarte talde batzuen inguruan, gizartea zamatzen dutela eta antzeko adierazpenak eginez sor daitezkeen estereotipoak baztertzeari. Bizkaian inor ere ez dago soberan. Denontzako lekua dago.
3. Atzerriko tituluaren homologazioa edo baliozkotzea erraztea. Gaur egun arazo handiak daude atzerriko pertsonen tituluak aitortzeko, eta hori arazo handia da prestakuntza prozesuei jarraipena emateko eta lan munduan sartzeko.
4. Ijitoei prestakuntza jasotzeko aukerak ematea. Kalitatezko prestakuntza jasotzen dutela bermatu behar dugu, prestakuntza hori gizarteratzeko tresna nagusia dela kontuan harturik.

5. Ostatu ematean sortzen diren arazoak eta ijitoek etxebizitza aurkitzeko izan ditzaketan arazoak konpontzea.
6. Etorkinei beren jatorrizko herrialdeetara lanpostua bermatuta bueltatzea ahalbidetzeko lankidetzak ildoak abian jartzea. Lankidetzak alorrean ematen den laguntasunak pertsonengan ekintzaitzarako gaitasuna sustatzea, beren jatorrizko herrialdeetan aberastasuna sortzeko aukera izan dezaten.
7. Etorkinen bigarren belaunaldien integrazioa babestea eta laguntzea.

GENERO PAREKIDETASUNARI BEGIRA

Genero arteko desberdintasuna da gizartearen erronkarik nagusienetakoa, indarkeria matxista, desberdintasun horren adierazpenik handiena eta ankerrena delarik. Ahaleginak bideratu behar ditugu pertsona guztien arteko aukera eta eskubide berdintasuna bermatzera. Funtsezko eskubidea da, norbanakoaren sexua, orientazio sexuala, erlijioa edo arraza dena delakoa izanik. Horretarako, guztiz ezinbestekoa da aukera berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta kultur aniztasunarekiko errespetua sustatzea. **BizkaiaGO** ekimenean jasotako ekarpenak hurrengo lerrootan laburbiltzen dira:

1. Herrialdeko emakume eta gizon gazteen artean berdintasun eta parekidetasun kanpainak bultzatzea. Saihestu beharreko dugu Bizkaiko gazteek beren harreman pertsonal eta sexualetan balore matxistak erreproduzitzea.
2. Seme alaba eta gurasoen arteko indarkeria kasuetarako egon daitezkeen babes zerbitzuak baliatzea. Seme eta alaben indarkeria jasaten duten gurasoentzat dauden laguntasan zerbitzuak ezagutarazi behar ditugu.
3. Genero bortxakeriaren biktima diren emakumeentzako laguntasunak izapidetzeko prozesua arinago egitea.
4. Lana eta bizitza pribatua uztartzeko pizgarriak ematea. Orduategien flexibilizazio eta arrazionalizazioa bultzatu behar dugu bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko, enpresa publikoen zein pribatuen esparruan.

HIRUGARREN SEKTOREAREN EGITEKOARI BEGIRA

Gizarte ekintza esparruko hirugarren sektorea osatzen dute irabaz asmorik gabeko erakundeak dira interes orokorreko jarduerak eta zerbitzuak garatzen dituztenak, hiritartasuna egiten dutenak, gizarte kohesioa eta inklusioa eragiten dutenak, txirotasuna eta diskriminazioa borrokatzen dutenak, gure gizarteko gizarte talde ahulenak gutxieneko gizarte ongizate mailatik kanpo gera ez daitezzen, Administrazioa eta merkaturia iristen ez diren lekuetara iritsiz. **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonen aho batez esan dute Bizkaia-aren garapen

orekatura begira ezinbestekoa dela sektore hori babestea eta sustatzea. Helburu horrekin, honako proposamen hauek egin dira:

1. Sare lana bultzatzea, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatzea, Bizkaian esparru sozio-sanitarioko zerbitzuak hobetzeko.
2. Hirugarren sektoreko erakundeek lana ahalbidetzea eta babestea. Diru laguntasunak emateko izapideak erraztea eta kudeaketa sinplifikatzea.
3. Hirugarren sektorearen profesionalizazioa bultzatzea. Hirugarren sektore eraginkor eta profesionala behar dugu, burutuko dituen eginkizunetan ekarpen eta eragin sozial positibo handiagoa lor dezan.
4. Gizarteari ekarpena egiteko eta gizartean eraginkor izateko sistema estandarizatuak bultzatzea. Auditoria soziala garatzea hirugarren sektorearen jardueren balioa azpimarratzeko eta egiten duten ekarpena agerian uzteko.
5. Hirugarren sektoreko enpresen kontratazioa ahalbidetzea. Behar-beharrezkoa da administrazioek kontratazio pleguetan gizarte klausulak sartzea. Bestela, gizarteratze enpresek lehiakor izateko aukera gutxiago izango dituzte.
6. Boluntarioratza sustatzea. Gizartearekiko konpromisoa bultzatu behar dugu, eta gizarte esparruan boluntarioratza sustatu.

EUSKARAREN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

ELEANIZTASUNA BULTZATZERA BEGIRA

Akordio bat dago esparru globalean aritzeko hizkuntza gaitasun nahikoak dituzten pertsonak izateak herrialdearentzat suposatzen duen garrantziaren inguruan. Ahalegin berezia egin behar dugu, eta gazteen artean gaitasun horiek bultzatu eta garatu behar ditugu. Hizkuntzak ezinbesteko tresna dira beren garapen profesionalerako. Aldi berean, ezinbestekoa da euskararen sustapenarekin eta hizkuntzen bizikidetzarekin hartu den konpromisoari eustea gizarte kohesiorako eta kulturgintzarako elementu diren heinean. Jarraian, hona hemen **BizkaiaGO** ekimenaren barruan jaso diren ekarpenak:

1. Hirueletasuna bultzatzea. Hezkuntza eleanitza bultzatzen segitu behar dugu, euskara ardatz nagusi izanik, ikasketak amaitzean ikasleek gaitasun komunikatibo nahikoa izan dezaten euskaraz, gaztelaniaz eta hirugarren hizkuntza batean (ingelesez).
2. Ikastetxeetan gurasoek euskara jakiteak duen garrantziaz sentsibilizatzea. Gurasoek euskara ikastea babestu eta erraztu behar dugu.

3. Eraginkortasuna hobetzea. Hizkuntzen irakaskuntza efizienteagoa behar dugu, gure ikasleei kalitatezko prestakuntza eta irakaskuntza eskaintzeko ahalegina eginez.
4. Kultur trukatzeko ekimenak sustatzea, ikasleriak hizkuntza murgiltze kalitatezkoa egin dezan, koste baxuarekin eta hirugarren hizkuntza behar bezala ikastea bermatzeko.
5. Euskararen erabilera sustatzeko jarduera ludiko eta jostagarrien garapena sustatzea.
6. Kirol esparruetan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzea.
7. Inguruko eragile eta erakundeekin lankidetzan, hizkuntzak erabiltzea errazteko egitasmoak garatzea.
8. Lanbide Heziketa euskaraz, ezinbestekoa baita produkzio sektorearen euskalduntzerako.
9. Euskara ikasteko egitasmo bereziak, malguak eta pertsonalizatuak sustatzea, hiritarren eta gizarte taldeen beharrei moldatuak.
10. Helduentzako ikaskuntza sistemak bizkortzeko metodologia, material eta bitarteko berriak arakatzea.
11. Euskararen erabilera sustatzeko esparru moderno eta erakargarriak garatzea.
12. Euskara hizkuntza praktikoa gisa. Euskara ikastea zerbait erakargarria, interesgarria eta modernoa dela erakustea.

EUSKARAZ EGITEN DEN KULTURA SUSTATZERA BEGIRA

Euskal kultura eta euskal kultur produkzioa dira gure nortasun kulturalaren parte garrantzitsua. Gure sustraiei lotutako kultura garatzea babesteak duen garrantzia azpimarratu da gizarte kohesiorako, nortasun eta garapen ekonomikorako elementua den neurrian. Esparru honetan eginiko ekarpenak honako lerrootan laburbiltzen dira:

1. “Made in Euskadi” epigrafearekin egiten dena eta euskal kultura bereiztea. Kontzeptu biek existitu behar dute eta elkarbizitza hori da gure herriari bere aberastasun kulturala ematen diona.
2. Kulturartekotasuna sustatzea. Beste kulturekiko izan dezakegun harreman onak ahalbidetzen digu gurea indartzea eta sustatzea.
3. Euskaraz egiten diren produktu eta jardueren garapena babestea. Euskaraz egiten den kulturaren banaketa bultzatu eta babestu behar dugu.
4. Euskaraz burutzen diren ekimenak beren dimentsio propioan aztertu eta ebaluatu behar ditugu. Ezin gara gaztelaniaz egiten diren ekimenekiko konparaketan erori.
5. Euskararen inguruan egingo diren ekimenak, baliabideak eta kultur jarduerak zabaldu behar ditugu. Hiritargoak ezagutu egin behar du eskura izan dezakeen eskaintza guztia.

6. Euskararen inguruko kultur jarduerak sortzeko,garatzeko eta sustatzeko alorrean teknologia berrien erabilerak dakartzan abantailak baliatzea.
7. Aldi berean, euskara hitz egiten ez duten arren, euskaldun sentitzen diren artistak babestu behar dira. Talentua duten eta ekintzaileak diren pertsonak dira, Europari edo mundu zabalari begiratzen diotenak eta mundu osoarekin sormen loturak marrazten dituztenak.

ARRANTZA ESPARRUAREN GARAPENAREN ALORREAN LEHENETSI BEHARREKOAK

Adostasun bat dago gure sektore tradizionalenetan modernizazioan eta berrikuntzari eman beharreko bultzadan aurrera egin beharraren inguruan, arrantzaren sektorean, hauen artean: Berrikuntza, era honetako sektoreetan, produktu eta zerbitzuen balioa igotzera bideratu behar da, teknologiaren potentziala baliatuta eta merkaturatze estrategia berritzaileak garatuz. Jarraian, hona hemen **BizkaiaGO** ekimenean parte hartu duten pertsonen eginiko proposamenak:

1. Arrantza azpiegiturak hobetzea ezinbestekoa da arrantza sektorearen etorkizunearako. Horiek guztiak berrikusi behar ditugu eta suspertze plana martxan jarri behar dugu.
2. Arrantza kuoten eta arrantza-bazterkinen politika orekatua sustatu behar da. Zenbat eta kuota handiagoak izan, orduan eta errentagarritasun handiagoa eta tranpa gutxiago.
3. Itsasontzien artean arrantza kuoten banaketa bidezko eta orekatua bultzatzea.
4. Ateratze sektoretik sortarazten den jarduera ekonomikoa ikusgarri egitea eta bere balioa azpimarratzea.
5. Artisau-arrantzaren kontrola hobetzea. Estatu mailako itsasontzien kontrol handiagoa beharko litzateke.
6. Balio erantsi handiagoa izango duten arrantza produktuak garatzea. Merkaturatze estrategia gisa, jatorri deituren antzeko estrategiak gartzea. Esate baterako "X herrian eginiko" arrantza produktuak.

7. Arrain azokak sustatzea eta nazioarte mailan antolatzen diren erakustazoketan parte hartzea sustatzea. Kalitatezko produktua daukagu. Munduan erakutsi eta saldu behar dugu.
8. Gure ontzidietan belaunaldi berriak sartzeari bultzatzea. Gazteei laguntasuna eta babesa eman behar diegu itsasontzietan agintea bereganatzeko behar duten prestakuntza lortzeko beken bidez.
9. Sektorearen profesionalizazioa bultzatzea. Prestakuntza programa berriak garatzea eta bultzatzea, sektoreko profesionalen artean beren gaitasunak hobetzeko eta berriak garatzeko.
10. Gure arrantza portuetarako sarbideak eta komunikazioak hobetzea.
11. Sektore honetako eragileen arteko koordinazioa hobetzea. Arrantza sektoreak erakunde indartsuak eta ondo egituratuak behar ditu ateratze prozesuetan eta merkaturatzean lankidetzan jarduteko, beren lehiakortasuna hobetzera begira.
12. Sektorearen berrikuntza ahalbidetzea. I+G kontzeptuetan egiten ditugun ahaleginak areagotu behar ditugu sektore indartsua izan dezagun, lehengai fresko eta transformagarria eskaini diezagun eta, horren bidez, ateratze arrantzaren eskaintza handitzea lor dezagun.
13. Merkaturatze eta kontserba enpresen eta institutu teknologikoen arteko harremana eta interakzioa sustatzea, merkaturatze eta kontserba enpresa hauek I+G+B politikak abian jartzeko.



BIZKAiAGO!

